

2008ko azaroaren 27a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net



Langile ebentualak kalean eta fijoak larri

04

Krisi ekonomikoak bete-betean eragin du eskualdeko lantegien produkzioan. Horren ondorioz, EREak aurkeztu dira hainbat tokitan eta langabezia ere igo egin da.



Doneztebe eta Beti Gazteko neskak aurrez aurre

57

Lesakako Beti Gazte eta Doneztebe neskak kadeteen arteko lehen derbia jokatu zen azaroaren 15ean Lesakan, eta etxekoek 3-0eko garaipena lortu zuten.

03

Larunbateko abesbatzen topaketan emanen du azken emanaldia Asketak

SAIATU ARREN, EZ DUTE SEGITZEKO JENDE NAHIKO BILDU

deskontuak
DENDA HAUTAN EROSTEAGATIK

SEMPER

SEMPER auto-eskola • BERA
%10eko deskontua matrikulan

KATTALINGORRI

KATTALINGORRI • ELIZONDO
%10eko deskontua



TXINELKA zapata-denda • LESAKA
%10eko deskontua



KATEA-BIKE • BERA
%5eko deskontua konponketetan

BERAUTO

BERAUTO tailerra • BERA
%5eko deskontua errekanbioetan



FOTO MENA
MENA argazki-denda • ELIZONDO
%10eko deskontua kopia digitaletan

SARIDUNAK:

- 1 4 liburu (Ibaizabal):
Lupe Muxika (LESAKA)
 - 2 Argiaren kamiseta:
Nekane Unson (LEGASA)
Jon Mixeltoarena (ETXALAR)
 - Argia aldizkariaren
6 hilabeteko 2 harpidetza:
Marian Irazoki (BERA)
Asun Apeztegia (ORONDOZ-MUGAURI)
 - 3 Txapela Buruan kamiseta:
Amagoia Susperregi (LESAKA)
Ainara Mindegia (AURTITZ)
 - 4 Tiantto puzzlea (Ikastolen Elk.):
Migel M^a Irigoien (ETXALAR)
 - 5 Martikoren lotea:
M^a Joxe Apeztegia (ITUREN)
 - 6 Oninart 2 kamiseta:
M^a Dolores Albizu (LESAKA)
- AQUARIUM 2 sarrera
Lourdes Indakotxea (SUNBILLA)

ORAIN www.ttipi.net

bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58



ttipi txartela rekin
beti irabazten da!

8 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
astelehenetik ostiralera
09:00-16:00 Tel: 948 63 54 58

1 LAU LIBURU

Itxasoak Ihen
Horelako da biotza, Carlota
31 Bakoita
Mende berrirako gureak Auzoak

Lote 1

erein
argitaletxea
www.erein.com

2

Kirolez Badakit
MAHAI-JOLASA

1 Lote

ARGIA
www.argia.com

3

KAMISETA

2 Lote

txapela buruan
www.txapelaburuan.com

4

Euskal Jolasen
bilduma II
CD-ROM

Lote 1

U
www.uisa.net

5

Sagardoaren
DVD
LIBURUA

Lote 1

ola
SAGARDOATEGIA
www.olasagardotegia.com

6

BI KAMISETA

Lote 1

oninart
www.oninart.com

ttipi saskia **TTPI SASKIA**ren **ZOZKETAN**
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE
Bidali SMSa idatziz **TTPI SASKIA** eta zure **IZEN-DEITURA 5767** ra



2 LOTE
(lote bakoitzak 4 sarrera)

AQUARIUM
DONOSTIA
943 44 00 99
www.aquariumes.com

Zozketan parte hartzeko epea: azararen 20tik abenduaren 2ra. Irabazleen izenak abenduaren 18ko aldizkarian argitaratuko dira. Mezuaren kostea 1.20€ (BEZ gabe). Zure datuak ttipi-ttipiaren fitxategian gordetako dira zuretzat izan diren eskaritzen berr emateko. Zuzenketa edo deuslarietarako bat egiteko deitu 948 63 54 58ra.

DATUAK...

- Nafarroako Mendialdeko Abesbatzen Topaketa Leitzan egingen da aurten, larunbatean, azaroak 29, San Migel parrokian. Zortzi abesbatza elkartuko dira.
- Aurtengo jaialdia antolatzeaz Asketa abesbatza arduratu da eta topaketaren xehetasun gehiago eman dizkigu Asketako zuzendaria den Ainhoa Rodak.
- Urtebete darama Rodak zuzendari lanetan, eta balorazio bat eskatuta, berri tristea eman digu: larunbatekoa izanen da Asketaren azken kontzertua. Desagertu egingen da.



Ainara RODA *Leitzako Asketa abesbatzako zuzendaria*

ARGAZKIA: G. PIKABEA

«Larunbateko koruen topaketarekin bukatuko da Asketaren ibilbidea»

Gurutze PIKABEA

lazko urrian hasi zinen zuzendari lanetan. Nolako balantzea egiten duzu?

Ona ez. 18 lagun baino ez gara eta hori jende gutxi da abesbatza baterako. Gainera 18 horietan mutil gutxi daude eta daudenak turnoka ari dira lanean eta ezin dira entsegu guztietara etorri. Askotan hitz egin dugu honi buruz eta azkenean bukatzea erabaki dugu. Nafarroako Mendialdeko Abesbatzen Topaketa antolatzeko konpromisoa hartu genuen, baina larunbateko topaketaren ondoren, segitzea ezinezkoa denez, hor bukatuko da Asketaren ibilbidea.

Mutil falta da arazoa, beraz,...

Duela hilabete batzuk mutilak hartu nahian kanpaina egin genuen, baina alferrik. Koro mistoa gara, eta sei soprano, zazpi kontralto, tenore bat eta baxu bat izateak ez du zentzurik. Oso gaizki konpentsatua dago. Emakumezkoena bakarrik izanen litzatekeen korua sortzeko proposamena ere aztertu genuen, baina bozketa bidez ezezkua atera zen. Dauden neskek jarraitzekotan mutilekin jarraitu nahi dute. Pena da abesbatza desagertzea, asko txikitatik koru horrean egon baikara, baina zaila da.

«18 lagun baino ez gara eta hori gutxi da abesbatza baterako.

Gainera mutil gutxi daude.

Askotan hitz egin dugu honi buruz eta azkenean bukatzea erabaki dugu»

Leitzan bertze abesbatza bat dago, Jeiki. Planteatu duzue elkartzea?

Ez dugu hitz egin honi buruz baina ikusiko da. Beste abesbatza mota bat da Jeiki. Egia da gero eta gazte gehiago ari dela sartzen baina gehienak helduak dira. Errepertorioa ere bestelakoa da eta seriotasun haundiagoa dute. Agian Asketa desagertzean Jeikirekin abestera animatuko da baten bat.

Nolako errepertorioa duzue Asketan?

Betidanik euskal folklorea ere aritu gara. Mezan parte hartzeko badugu sakroen errepertorio txiki bat ere, baina gainontzekoa, %90a, euskal folklorea.

Musika edo doinu adetik zein ezagurri ditu Asketak?


Gurea beti izan da abesbatza gaztea eta gazteak izanda ahotsak argiak izan dira. Hori izan da gure ezaugarria. 20-

28 urteen artekoak dira gehientsuenak. **Nolakoa izanen da larunbateko abesbatzen topaketa?**

Zortzi abesbatza elkartuko gara eta bakoitzak bi abesti kantatuko ditu. Horrez gain, Leitzakoak izaki, Jeiki eta Asketak elkarrekin beste bat abestuko dugu. Bukaera, abesbatza guztiak elkarrekin bi obra kantatuko ditugu. Ordu eta erdiko saioa izanen da gutxi gorabehera eta ondotik afaria egingen dugu eskolako jantokian. Guk *Balaio* kantatu brasildarra aukeratu dugu, eta Jeikirekin *Erribera* abestuko dugu.

Zerbait gehituko zenuke?

Topaketari buruz, esan, afiziorik ez dutenentzat edo halako emanaldi batean inoiz egon ez den batentzat, aukera ona dela, estilo desberdinetako abestiak entzuteko modua izanen baitu. Alde horretatik, leitzar guztiak eta kanpokoak gonbidatuak daude. Bestalde, Asketa desagertzera doanez, herritarrei eta urte guzti hauetan lagundu diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Pena haundiz uzten dugu, eta agian ez da betirako izanen, baina oraingoz atea itxi beharra dago, ezi-nezkoa delako.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Krisi ekonomikoak lanik gabe utzi ditu lantegiak eta horren ondorioz, langileak kanporatzeari ekin diote enpresek.

Produkzioaren beherakadak %13 hazi du langabezia gure inguruan

DONEZTEBEKO ENPLEGU BULEGOAN 670 ZEUDEN LAN ESKE URRIAN

AEBek errausin egiten duenean mundu osoa gaixotzen dela dio erranera zahar batek. Bada, ekonomiaren azken joerei erreparatuz, hala dirudi. AEBetan 2007an hasitako finantza krisia mundu osora hedatu da, eta ekonomiako bertze alorretara ere zabaldu da dagoneko. Hedabideetan ez dugu bertzerik: krisia goian eta krisia behean. Eta horrek ondorioak utzi ditu: lana eta produkzioak beheiti, salmentak jaitsi, lantegiak itxi, greba mugagabeak, Enplegua Erregulatzeko Espedienteak (ERE), langileak kanpora, langabeziak goiti... Krisi ekonomikoa omen dago guztiaren gibelean. Urrutiko arazoa bailitzan ikusten genuen, baina ez, ailegatu da gurera ere. Egoera ez da xamurra eta adituen arabera, oraindik okerreana etortzeaz dago. Gaia hurbilagotik ikusteko, eskualdeko ekonomiaren motore indartsuenak diren lantegien egoera aztertu dugu tarte honetan. Gehienak kolokan daude, eta batzuk krisi ekonomiko sonatu honen aitzinetik ere hala honela zebiltzan arren, oraingo krisiak guztiei eragin die, lehendik gaizki eta ongi zebiltzanei. Eskualdeko lantegi haundienetaz aritu zaizkigu LAB, ELA eta UGT sindikatueta ordezkariek.

Gurutze PIKABEA

Langabeziak %13 egin zuen goiti irailetik urrira Doneztebeko Enplegu Bulegoan. Horren gibelean, bertzeak bertze, eskualdeko lantegi aunitzek langile ebentualak kalera bota izana dago. Horrez gain, Enplegua Erregulatzeko Espedienteak ere aurkeztu dute lantegi batek baino gehiagok denboraldi jakinerako. Batzuei zuzenean eragin die krisi ekonomikoak; bertzeak, berriz, lehendik ere kili-kolo zebiltzan eta oraingo krisi hau gehigarri bat baino ez da.

Condesa (Zalain Zoko, Lesaka)

Bortzgarren erreleboa kendu nahi du enpresak

2007an Arabako Tubos Reunidos eta Condesa enpresak bat egin zuten, eta ia 25 milioi euroko irabaziak izan dituzte. Halere, aurtan, uda aitzinetik Enplegua Erregulatzeko Espedienteak atera zuen mahai gainera Zalain Zo-

“EREa aurkezten duten momentuan enpresaren kontra egin behar da langileentzat kaltegarria delako”

Koldo SAENZ, LAB

koko zuzendaritzak. «*Basakeria bat izan zen. Hainbertzeko irabaziak izan eta gero EREa aurkeztea*», dio LAB sindikatu-ko Julen Mitxelorenak. Irailean, ordea, alde batera utzi zuen EREa. Eta berteze proposamen bat du orain eskuartean zuzendaritzak: bortzgarren erreleboa kentzearena. Tutu kalibratua eta berezia egiten den sekzioetan bortzgarren erreleboa kendu nahi du eta horrek 18 langileren murrizketa ekarriko luke.

Enplegua Erregulatze Espediente alde batera utzita, orain langile multzo baten lan erregimena da eztabaibatzen ari direna. Halere, EREa buruan dutela daude sindikatuak. UGTko Patxi Altxuren hitzetan, «*Nahiz eta oraingo ezpediente erretiratu, luze gabe berteze zerbaiten berri izanen dugu*». LABek arriskua «*beti*» egonen dela uste du: «*gure aldetik borrokatzen segituko dugu Zalainek gehiago sufri ez dezan*».

Arcelor-Mittal (Lesaka - Legasa)

Produkzioa %33ra jaitsiko dela aurreikusi dute

Arcelor-Mittalen, Condesan aspaldi egin zuten bezala, ebentual guztiak kaleratu zituzten uda aitzinetik, eskaerak %35era jaitsi baitira. LABeko Koldo Saenzek azaldu digunez, «*baliteke %25era ere jaistea*». Makinak geldirik daude, eta makinak geldirik egonean, jendea soberan dago. «*Langile finkoak ere lanik gabe gaude, eta horrek edozergauza ekar lezake*», dio UGTk. Dena den, Arcello-rrak eskuartean duen egitasmo nagusia Bidasoa Plana da eta horrekin itxaropentsu daude sindikatuak, inbertsio berriak ekartzen ahal dituelako. 35 milioi euroko inbertsioa izanen duen plan industrial horren arabera, 2011rako Legasako Arcelor lantegia itxi egingen da eta produkzioa Lesakara eramanen da. Lesakan, lerro konbinatua deritzona paratuko dute: pintatu edota galbanizatzen duen makineria. Saneatzeko lerroa eta aplakadora mistoa ere paratuko dira. Teknologia berri horiekien langileak soberan geldituko dira: 59 urterekin emanen diote erretiroa langileei eta gainerakoak «*%79 inguru kobratuko dute*», dio Patxi. Inbertsioak 100 langileri era-

“Urteetan zakua ederki bete dute enpresek; orain banatzen ahal dute, ez? Berehala erregulazioa? Guttienez itxaron!”

J.M. ARRIBILLAGA, ELA

gingen die. «*Gaur egun, Lesakan eta Legasan 830 langile inguru gaude eta Bidasoa Planarekin 650 bat geldituko gara*», azaldu digu UGTk. Baina gaineratu digunez, «*murrizketa justifikatua eta bermatua da*».

Bai Arcelorren, bai Condesan, erabakiak kanpoan hartzen direla kritikatu du ELAko Jose Mari Arribillagak: «*kanpoko erabakien menpe bizi dira, Madril edo Bruselan erabakitzen dute eta hemen gertatzen dena ez zaie axola, ez dute ikusten langileria nola gelditzen den*».

Funvera (Bera)

58 egunez langileak etxera bidali ditu enpresak

Krisia ailegatu arte, produkzioan bete-betean asmatu duen lantegietako bat da Funvera. Baina krisiarekin erabat aldatu zaio panorama. Enplegua Erregulatze Espediente azaroaren 18an aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuan eta horren ondorioz, 58 egunez langile gehienak paroa kobratzera kalera joan beharko dute. «*Enpresak dio zer nola-ko etorkizuna izanen duen pentsatzeko zazpi-zortzi hilabete behar dituela, eta sindikatuok proba denbora guttiagorekin egiteko eskatzen dugu*», azaldu digu ELAk. LABeko Saenzek, ordea, EREa onartu izana lantegian gehien goa duen ELAri leporatu dio: «*ELA sindikatua akordio batera iritsi da baldintza konkretu batzuen truke. LABek ez du sinatu, bertzelako irtenbideak badaudela uste dugulako*». Gisa berean, azken bi urteotako irabaziak ekarri ditu gogora LABek: «*azken bi urteotan sei milioi euroko irabaziak izan ditu. 2008ko lehen sei hilabeteetan ere hagitz ongi egin zuen lana, eta orain bat-batean ERE martxan jarri behar dutela erran dute, Alemaniako bezero batek huts egin duelako. Enpresaren kudeaketa txarra ez dute langileek ordaindu behar*».

58 egun horien ondotik gertatuko denaren beldur da LAB. «*Orain lan-kontratuaren etenaldiarekin aurkeztu dute EREa, baina gerta liteke, epea bukatuta kontratua behin betiko etetea*».

ELA, bere aldetik, EREen inguruan mintzatu zaigu eta momentuko eraba-

“Egoera hobetu bitartean arrasto aunitz geldituko dira bidean, eta zenbaitzuri kostako zaie gainditzea”

Patxi ALTUXU, UGT

kia presaka hartzea leporatu die enpresei: «*Urte aunitzetan zakua ederki bete dute enpresek eta zerbait banatzen ahal dute. Berehala erregulazioa? Guttienez itxaron!*». LABek, berriz, EREa aurkeztu orduko enpresaren kontra egin behar dela nabarmendu du, langileentzat «*kaltegarria*» delako.

Savera (Bera)

Langile ebentualak soberan gelditu dira

Eraikuntzaren krisiak Savera jo du. Estatu espainiarrean eraikuntzaren sektoreak beherakada izan du, eta Savera lantegiaren produkzioak ere beheiti egin du. Langile ebentualak soberan gelditu dira, baina ELAk adierazi digunez, «*ERE-en konturik ez dago oraingoaz*».

Manufacturas Alco (Bera)

Abenduaren 10era arte enplegu-etenarekin

Gorabeherak lehendik somatu ziren Manufacturas Alco lantegian. Irailaren 3an zuzendaritzak Enplegua Erregulatze Espediente aurkeztu zuen. Urriaren 6an, berriz, negoziazioen ondotik, neurri hauek erabaki ziren: batetik, langileen soldatak %25 jautsi dira; bigarrenik, zazpi langilek aurre-erretiroa hartu zuten; azkenik, 38-40 langilek aldi baterako enplegu-etena izatea adostu zen. Hala, langile horiek abenduaren 10era arte enplegu-etenarekin segituko dute. Lanik gabe daudenean, lanean baleude bezala kobratuko dute, horretarako gehigarria enpresak ordainduko baitie.

Sarripapel-Torraspapel (Leitza)

Enpresako bertze lantegiak itxita, baina Leitzakoa salbu

Sarripapel edo Torraspapel lantegia- ren talde bereko bi lantegi itxi egin dituzte –Zornotza (Bizkaia) eta Algeciras-eko (Espainia)–, baina antza, Leitzakoa libre gelditu da. Papergintzaren krisiak eta egungo egoera ekonomikoak eragin omen dituzte itxierak, baina Leitza orain arte adina ekoizten segituko dutela adierazi du lantegia Kataluniatik kudeatzen duen CVC kapital taldeak.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemaneu Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea...

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jas du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jas du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Mediku zerbitzuen murrizketa salatzeke

Komunikabideen bidez jakin dugu Osasun Departamentuak Baztanen dauden bi Arreta Iraunkorreko Zentroetako bat itxi nahi duela, Oronozkoa, hain zuzen. Horren aitzinean, Baztango zinpeko alkateok, Batzar Nagusia eta Baztango Udalaren erabateko babesarekin, erabaki dugu neurri horrek sortzen digun kezka azaltzea eta Osasun Departamentuari eskatzea bere postura birplantea dezan.

Neurri hau aitzinera ateratzen bada, mediku bakar batek eta erizain batek Baztan Balleko larraldi guztien ardura hartu beharko dute.

Gure ustez, osasuna arrasgai garrantzitsua da eta bertan ez dira baliabideak murriztu behar. Kontuan hartu behar da Baztan Nafarroako udalerri haundiena dela eta bere mugen artean 375 kilometro koadro biltzen dituela. Horretaz gainera, populazioa sakabatatua dago 15 herri eta hainbat eta hainbat baserriren artean. Aunitzetan mediku eta erizainek distantzia haundiak egin behar izaten dituzte eta gainera, sarritan, bideak ez daude asfaltaturik eta kilometro anitz egin behar izaten dituzten bide zakarretan.

Honengatik guziagatik, Nafarroako Gobernu Osasunbideko kontseilariari eskatzen diogu aipatu Arreta Iraunkorreko Zentroa ez ixtea.

Baztango zinpeko alkateak

N-121A errepidea

N-121A errepidearen inguruan eraiki den kontsentsu politiko, mediatiko eta neurri batean sozialak jende aunitzen kezka isilarazi badu ere, ez du desagertarazi. Baldintza hauetan, errepide berri hau, egiten ari direna errepide berria baita, kritikatzeko ez da batere xamurra; baina egiten ari direnaren aitzinean isilik egotea, makurragoa litzateke.

Hasteko, errepide berri hau egiteko tenorean, bide honetan izandako istripu eta heriotz saminak aipatu izan dira, hau da, errepideak zuen arrisku handia. Samintasun horrekin denok bat egiten dugu, bistan denez; baina ageriko arrisku hauek ttipitzeko bertzeko aukerak egon bazeuden: eskualdea helburu ez duen zama garraioaren pausua debekatu, garraio publiko kolektiboaren bultzatzea (egun dagoena iragarria da), ildo horretan, errepide berria egiteko halako diruketa erabiltzeko prest badaude zergatik ez Tren Txikito berriz martxan paratzeke? Eta horrekin guztia erekin, punturik beltzenetan moldaketak egin, eta dudarik gabe, mugitzeko beharra murriztu.

Gauzak horrela, errepide berri honi buruz solastatzerakoan, beharrezkoa da nazioarteko zama garraioari buruz eta horregatik, nazioarteko lanaren antolaketa berriari buruz aritzea. Tesuinguru horretan, ekoizpen kostuak murriztu eta irabaziak handitzeko, ekoizpen prozesuaren zatiketa eta zama garraioaren handitzea gertatzen da; eta hau ez da nolana hiko kontua, ka-

mioien joan-etorria N-121A errepideko arriskuaren iturburuarekin lotzen baita. Bertzetik, kapitalismoaren birmoldaketaren baitan, metro-polizazio prozesua hedatzen ari da, eta horrekin, menpekotasun harremanean oinarrituriko lurraldearen integrazio funtzionala eta espezializazioa. Hala bada, hiri lauso horrek gero eta eremu handiagoa eraginpean hartzen du. Horrela, errepide berri honekin, Donostialdea-Bidasoa hiriguneak, km²ko 1.000 biztanletik goiti duenak eta alde guztietatik gainezka egin hurren dabilenak (plataforma logistikoak, superportua, AHT, saihezbideak...) esku eskura izanen du Baztan-Bidasoa eskualdea, horrek ekarriko duen kolonizazio urbanistikoarekin, eta gisa guztietako ondorio sozialekin. Nahiz eta gaurgero, badien etorkizuneko egoera hori irrikaz, eskuak igurtziz begiratzen dutenak, negozio berriak egiteko desiotan.

Baldintza hauetan, eragile desberdinek errepide berriari eman dioten bedekazioa aski argigarria da. Aldi berean, bazter guztien xehakuntza dakarren erokeri kapitalista garapenkeriazale hau gaitzesten dugunon utzikeri eta ezintasuna.

Bederen ez dezatela erran denen ongi-ikusia erekin egin zutenik.

Joseba Otondo
J. I. Etxamendi
Garbiñe Elizegi
Mikel Ortega
Urki Lizarribar
BAZTAN

Eskualdeko topaketa aurten Saran!

Topaketa hau ez da besta soila. Gazte egunak normalean jendeak besta on bat botatzeko eguna bezala hartzen ditu, baina jakin behar da haratago doala egun honen funtsa.

Duela hiru urte Baztan-Bidasoako herrien artean behar bat sortu zen. Bertako jendearen artean harreman sendo bat eratzekeoa. Hantxe hasi ginen ba, herriak batera lanean. Guttinaka guttinaka herri gehiago biltzen joan gara dinamika honen inguruan, hala nola, Sara, Arantza, Azkaine, Donibane Lohizune, Bera, Donamaria, Lesaka... (Barkatu norbait ahantzi bazaigu).

Baina herriak batzarekin batera, gure helburuak haratago iritsi dira oraingoan. Euskal Herriak bertze helburu garrantzitsuago bat eskatzen baitzigu. Mugak hausteara, hain zuzen, bi estatu arrotzek inposatutako mugak. Euskal Herria bat eta bakarra baita. Beraz gazte egun honekin inposatutako muga horiek haustera gonbidatzen dugu hurbiltzen den oro. Euskal herritar izan ala ez. Hori baita gure izatea.

Elkartasuna bultzatuko duen egun bat izanen da, harreman hori era natural batean, besta giroan, joera sexista eta homofoborik gabe igaroko dena. Kriston giroan.

Beraz, gonbidatzen zaituztegu giro apartan mugak haustera, giro elegantean. Zapaldu nahi gaituztenei erakusteko oraindik bertan jarraitzen dugula tinko!

• IRAKURLEAK MINTZO •

Animatu eta parte hartu!! Besta giro naturalean gure herria eraiki dezagun!

Eta bukatzeko gogoan hartzeko esaldi bat: «*Euskaldunak aunitzetan urtanta bat gara eta harriaren kontra ezin dugu deus ere egin. Baina denok elkar-tzen bagara eta mugak hausten baditugu, harriak higatu eta desegin ere egin ditzakegu*».

Eskualdeko Gaztetxe
eta Gazte Asanbladak

“Cristo Rey, Moruk kanpora, Burkak feministentzat, Navarra Cristiano”

Ez dakit jakingo duzuen ala ez, baina Donezteben gertatutako berri baten salaketa idatzi beharra sentitzen nuen.

Azaroaren 9tik 10era eta 10etik 11era Donezteben pintada batzuk azaldu ziren, margoketa horietan esaldi hauek ager-

tzen ziren: «*Cristo Rey, Moruk kanpora Burkak feministentzat, Navarra Catolica eta abar...*».

Bidelagun elkarteak islamari buruzko erakusketa bat ipini zuen herrian. Margoketa hauek erakusketaren kanpo aldean agertu ziren. Zergatik? Nola egon liteke XXI. mendean horrelako pentsamenduak dituen jendea? Argi dago egunetik egunera horrelako kasu gehiago agertzen direla eta normaltasunez hitz egiten da. Noiz arte jasan behar dugu sistema patriarkal eta xenofobo hau? Nire ustez gaztetatik heziketan dago gakoa: etxean, ikastolan nahiz institutuan.

Ni Doneztebeko gazte bat naiz eta sekula ez dut horrelako jarrera faxista eta matxista bat ikusi nere inguruan baina denak badakigu horrelako analfabeto asko dagoela herri guztietan eta kasu honetan Donezteben egin du bere *hazaña* pertsona. Bejondeizula *misérable* ez nuke nahi zure inguruan bizi, ez eta zure laguna izan ere.

Politikari buruz ere agerian dago ez duela ideia askorik eta faszisten monotonian jaioa dela, denak badakigu Donezteben *españolito* asko dagoela.

Asko sufritu dugu eta sufritzen hari gara Euskal Herrian, nahikoa da gure herria erasotzeaz. Lau katu zarete eta irabaziko dugu. Integrazioaren alde, parekotasunaren alde eta gure herriaren alde borrokatuko dugu!

Doneztebeko
gazte bat

Zahar-etxeen inguruan hitz bi

Zahar-etxea hitza aditzen dugunean hainbat gauza etortzen zaizkigu burura, hainbat ideia, irudi eta sarritan topikoak ere ez dira falta gure buruan leku hauetaz solas egiten dugunean. Burura etortzen zaigun irudia aitona-amon batzuk baka-

rrik eta asperturik beraien gauzetan pentsatzen inork kasurik egiten ez dion bitartean izaten da.

Idea hori zoritxarrez oso zabalduta dago eta horregatik daukagu hainbete erreparo gure senidereen bat bertan uztea suertatzen bada. Baina nola utziko dugu han bakarrik? Ongi egonen ote da? Ongi zaindurik? Behar duen guztia izanen du?

Zoritxarrez ez dugu aintzat hartzen bertako langileek egiten duten lana, lan gogorra, aunitzetan gaizki ordaindua, baina esker onekoa. Bertako langileek lana gogotik egiten dute agureei behar duten guztia eskaini eta zerbitzurik onena emateko. Gure senideak ezin hobeto zainduak daude zentru hauetan, bertara dedikatzen diren espezialistak izaki, momentu oro badakite zer egin eta nola zaindu pertsona hauek.

Betirako kendu behako genituzke gure burutik zentru hauei buruz ditugun aurritziak, leku

egokiak baitira gure senideak uzteko. Ez dugu benetan baloratzen profesional hauen lana eta pertsona hauek agureengatik egiten duten guztia. Pertsona hauek beraien senideak balira bezala zaintzen dituzte agureak beharrezkoa duten maitasuna eta zaintza profesionala eskainiz.

Ezin ahantzi bukatzeko zaintza medikuaz haratago eskaintzen duten kalitatezko zerbitzua, aisialdi programa, aktibitate eta bertze hainbat gauza jartzen dituztelarik zaharren eskuetan hauen estantzia ahalik eta goxoen izan dadin. Oro har erran daiteke pertsona hauek lekuri egokienean daudela, eta jaso behar duten zainketarik hobereena jasotzen dutela. Beraz, beharrezkoa da behingoagatik gure gizaratean zentru hauek baloratzea eta batipat bertako langileak baloratzea.

Koldo Saenz
LAB sindikatua

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

**Funda eta edredoi nordikoetan
espezialistak**

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

BERA

Ia 790.000 euroko dirulaguntza jaso dute Bera eta Lesakako lau lantegik

Egindako inbertsioak subentzionatzeko eman die laguntza Nafarroako Gobernuak

ttipi-ttapa

Guztira 14.864.644 euroko dirulaguntza onartu du Nafarroako Gobernuak Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak Nafarroako 42 enpresek egindako inbertsioak subentzionatzeko. Kopuru horretatik 786.966,58 euro inguruko enpresentzako izanen da: Savera, Verkol eta Ubela lantegientzat eta Alkaia industriaaldean dagoen Mendaur karrozeriak enpresentzat. Produktzioa modernizatu, sendotu eta dibertsifikatzeko egin dituzten inbertsioak subentzionatzeko onartu ditu Gobernuak laguntzak.

Mendaur karrozeriak 364.423,54 euro jasoiko ditu 1.401.629 euroko inbertsioari aitzin egiteko; Savera enpresak 188.399,40 euro hartuko ditu 3.139.990 euroko inbertsio bat tarteko; Verkol 220.000 euroko laguntza izanen du, 2.000.000 euroko aurrekontua duen inbertsio baten tzentzat; Ubela lantegiak 14.143,64 euro hartuko ditu, 94.290,95 euroko inbertsioa dela-eta.

Droga mendekotasunaz
Drogen mendekotasu-

nari buruzko jardunaldia antolatu dute Udalak eta Askagintzak larunbathonetarako. 10:00etan hasiko da eta 13:00ak bitarte, droga mendekotasunen fenomenoari buruz ariko dira. Bertzeak bertze, Hilario Garrudo psikologo klinikoak hitzaldia eskainiko du eta horrez gain, Bera Herri Planaren berri ere emanen du Askagintzak.

INFORMAZIO PUNTUA

Bertzalde, sexualitate eta drogen kontsumo eta erabilera dela-eta, gazteak ahalik eta informatuen egoteko informazio puntua zabaldu dute Askagintzak eta Udalak Herriko Etxean. Ortziraleroko zabalik dago bulegoa, 17:00etatik 20:00etara. Helbide honetara idatziz ere harremanetan jar daiteke: *dro-*

gaklarrugorrian@askagintza.com. Hiru helburu nagusi ditu informazio puntu honek: batetik, drogen eta sexualitateen inguruan ezagupena eskaini nahi da; bertzetik, osasun heziketarako estrategia ezberdinak garatu nahi dira, beti ere, osasuna sustatu eta prebentzioa landuz; azkenik, aholkularitza eskaini nahi da, konfidentzial-

tasuna eta laguntza emanez.

Azpiegitura lanak egiten

Duela bi aldizkari, nekazaritzako azpiegiturretan lanak eginen zirela iragarri genuen. Bada, hasi dira. Sasoi Eskabazioak enpresa da lanean ari dena, eta bertzeak bertze, Xantelerreka eta Suspelako bideetan zoladura-obra eginen ditu; horrez gain, Zalaingo ur depositura doan bidea ere konponduko du. Larun aldera doan pistan ere moldaketa batzuk eginen ditu, eta Kaule eta Garaitarreta auzoetarako sarbideetan ere hainbat lan eginen ditu. Lan hauen aurrekontua 202.561,82 eurokoa da eta Nafarroako Gobernuak 121.537,82 euroko dirulaguntza emanen du. Aurten 60.768,55 euro emanen ditu eta gainerakoa heldu den urtean.

Ipuin kontalaria ortziralean

Estitxu Mentaberri ipuin kontalaria Liburutegian izanen da ortziralean, hilak 28. 5-8 urte bitarteko neska-mutikoen zako saioa eskainiko du 18:00etatik aitzinera.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Endarlatsako zubi berriaren arkuak osatu dute

Endarlatsako zubi berriaren bi arku erdiak elkartu zituzten hilaren 18an. Zubi berriak ikusmin handia sortu zuen, errekan pilarerik ez duelako izan. Edonola ere, oraindik aunitz falta da zubi berritik ibilgailuak pasatu ahal izateko. Horretarako bete behar diren bederatzi fasetatik laugarrena bertzerik ez baita izan bi arkuak elkartzea. Lan hau egitea Gipuzkoako Diputazioari dagokio, nahiz eta Nafarroako Gobernuak erdia, 9,8 milioi euro, ordainduko dituen. Ekitaldiaren garrantzia sinbolikoa nabarmenduz, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuak presidentea eta Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakaria hurbildu ziren Endarlatsara, Gipuzkoako Diputazioko, Nafarroako Gobernuak eta inguruko herrietako udal ordezkariekin batera.

arropak • maindireak
mantak • nordikoak
toallak • kortinak
alfonbrak

Goya

Altoa, 3 • Tel: 948 630 083

Alberto RETEGI

abokatua

948 630 763 • Altxate, 17 • BERA

Xirri

Altxate 9 • BERA

Tel: 948 631 488

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 • BERA

LESAKA

Lesakan Euskaraz Bai ospakizuna egingen da igande honetan

Asteburu osoan Kontseiluaren 10. urteurreneko erakusketa ibiltaria ikusgai izanen da Beti Gazten

Aitor AROTZENA

Azkeneko urteetan Kultur Egunak antolatutako garai honetan. Euskaraz Batzordeak Aurretik, urrats bat aitzinera egin eta Euskaraz Bai ospakizuna antolatu du aste honar osorako. Kontseiluak 10 urte bete dituela-eta erakusketa ibiltaria ekarriko da Beti Gazte elkartera, larunbat eta igandean

11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 22:00etara.

Ekitaldi gehienak igandean izanen dira. 9:00etan bideo rallyaren aurkezpena egingen da frontoian. 10:00etan ilar prestaketa egingen da Plaza Zaharrean edo, euria egingen balu, frontoian. Eguerdian, etxeren izenak euskaraz paratuko dira eta euskar



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

85 urtekoei omenaldia

85 urte bete dituzten Urrezko Adina elkarteko lesakarrak omendu zituzten azaroaren 7an. Zehazki, hiru ziren omenaldia jaso behar zutenak: Juliana Etxeberria Telletxea, Santiago Telletxea eta Joxe Mari Iratzoki Telletxea. Dena den, soilik Elordiko Santiago Telletxea hurbildu zen omenaldira. Argazkian, meza ondotik ageri da Elordikoa, emaztea, hiru alaba, erraina eta biloba bat ondoan dituela. Gero, Etxalarko Bentan bazkaldu zuten.

raren erabilera bultzatzeko kanpainaren aurkezpena egingen da Plaza Zaharrean. 14:00etan ilar-jatea egingen da

frontoian. Bazkalondoa girotzeko, *Piano bat bertso* kantaldia izanen da frontoian bertan. Egitarauarekin akautzeko,

19:00etan bideo rallyren emanaldia eta sari banaketa egingen da Herriko Etxeko arkupeetan.

Mugikortasun Planak aitzinera segitzen du

Bizikleta erabiltzea bultzatu nahi da

A.A.

2005ean hasitako Mugikortasunaren Planarekin segituz, hainbat proiektu martxan ditu Udalak. Gidariekin eta oinezkoekin somatu izanen dute bide-seinale aldatzeko izan direla eta arretaz begiratzea gomendatu dute. Lehen posible ziren zenbait norabidetan gidatzea debekatzen duten seinaleak paratu dira eta oinezkoendako pa-

sabidea erraztu. Horrez gain, aparkaleku berrien azterketa eta bizikletaren erabilera bultzatzeko kanpaina egingen dira.

Azken ekimen honetan eta aitzinekoan bezala CRANaren laguntza izanen da eta Udaletik guraso elkarteak animatu nahi dituzte urtaril aldera garatuko den bizikletaren erabilera bultzatzeko kanpainan parte hartzera.



UTZITAKO ARGAZKIA

Tantirumairuko ikasleak Oteizaren mendeurrenean

Jorge Oteizaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko Tantirumairu ikastolako ikasleak Alzuzako museoa bisitatu ez ezik, artistaren teknika ezberdinak erabiliz zenbait «artelan» egin dituzte. Horietako batzuk, Alzuzako Museoa Eguberrietan jarriko den erakusketan ikusgai izanen dira.



ETXALAR

Zalaparta handia herrian, usazale eta ehizturien arteko tira-birak direla-eta

Arazoa udaletxean dago, eta udal taldea soluzioak bilatzen ari da

Joseba eta Nerea

Usategiak bi zatitan banatuta daude; usazaleak alde batetik, eta ehizturiak, bertetik. Historikoki beti harreman ona ezagutu zaie, baina azken urteotan, dela arrazoi bat, dela bertzea, tira-bira franko izaten ari dira. Arrazoiak arrazoi, aurren herri osoa pasatu den arazo bihurtu da, eta maila handiagoa hartu du, nahiko gora-behera itsusiak pasatzera arte. Ehiza postuen enkantea egin zenetik, ezadostasunak ikusi ziren bi aldean artean, eta batek baino gehiagok ez zuen aldarte onean hasi uso denboraldia. Asteen joanean, ezadostasunak areagotu bertzerik ez ziren egin, eta azken asteotan udaletxera ailegatu dira hika-mikak. Bi taldeek Udalarengana jo dute arazoari irtenbidea bilatzeko, eta momentu hauetan arazoa alkatearen mahai gainean dago. Denon hobe beha-



UTZITAKO ARGAZKIA

Eztabaida bizi-bizi dago eta ez usazaleak, ez ehizturiak ez daude gustura.

rrez espero dugu arazoa lehenbailehen konpontzea, gisa honetako berriein Usategiek berez duten edertasun historiko, turistiko eta kulturala desitxuratzea bertzerik ez baita lortzen. Lerro hauetan ez dugu talde baten edo bertzearen aldeko jarrerarik erakutsi nahi. Arazoa guztiontzat modurik mesedegarrienean moldatzea nahi dugu, Etxalarren hobe beharrez, herri bezala.

80 urtekoei omenaldia

San Francisco Jabier Egunean, abenduaren 3an, bi lagun omenduko ditu Larraburua Jubilatuen Elkarteak 80 urte betetzeagatik: Kuxi Iturria Zubieta eta Kontxita Villareal Irisarri. Igandero mezaren ondotik, bazkaria egingen dute Larraburuko egoitzan eta, ondotik, lore-sortak eta plaka emanen dizkiete omenduei ekitaldi xume batean.

Larraburuko mus eta partxis txapelketa martxan

Azaroaren 23an hasi zuten Larraburuko jubilatuek urteroko mus eta partxis txapelketa. Abenduaren hondarrean arte, elkarren kontra lehian ariko dira 11 bikote musean, eta bertze 8 bikote partxisen. Heldu den abenduaren 28an egingen dute azken bazkaria eta sari-banaketa.

Kultur Egun arrakastatsuak

Aurtengo Kultur Egunetan jende aunitzek parte hartu du eta inoiz baino mugimendu handiagoa izan da herrian. Herriko Ostatuan egin zen bertso afariak sekulako arrakasta izan zuen. Irungo txistulari bandak eskaini zuen kontzertu pedagogikoa ere jende franko bildu zuen. Orijinala izan zen besta batean artzain batek txistua nola asmatu zuen aditzea eta tresna berriak nola sortu ziren jakitea. Guztia musikaz lagunduta eskaini zuten. Ikuskizun berritzaile eta polita izan zen.

Iñaki Egañak Gerra Zibilaren ondorengo urteetan bizitutakoaz eman zuen hitzaldiak ere aunitzen interesa piztu zuen. Bertaratu ziren gehienek hurbiletik sentitu zuten Egañak kontatutakoa, eta hagitzen interesgarria izan zela erran digute.

LINE-EN-ISO 9001
IWC
SISTEMA DE GESTION
DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. - Bararta, 8 - 23 pabloia - LESAKA - Tinoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

Ezlegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

IGANTZI

Euskara Batzordearen eskutik, Kultur Egunak abenduaren 5etik 8ra

Astelehenean, etxeko produktu eta sendabelarren erakusketa egingen da

ttipi-ttapa

Euskara Batzordeak bertze urte batez Kultur Egunak antolatu ditu abendurako. Urtero bezala adin guztietako jendeari zuzendutako ekitaldiak izanen dira abenduaren 5etik 8ra.

Abenduak 5, ortzirala

- 21:30ean *txiste afaria* Biltokin, Guillermo Segurola azpeitiarraren eskutik.

Abenduak 6, larunbata

- 16:00etan Baratzondon: *haurrentzako film emanaldia* goxokiekin.
- 18:00etan Baratzondon: *Golaz*erfilm musikalak gaztetxoentzat.
- Iluntzean, helduentzako *antzerkia*.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Aurten ere bizkotxo lehiaketa egingen da udazkeneko Kultur Egunen barne.

Abenduak 7, igandea

- 11:00-13:00 eta 17:30-19:30, Ziber Txokoan, *zeinen tikiak garen!* unibertsoari buruzko erakusketa interaktiboa.
- 16:30etik aitzinera

haurrentzako ekin-tzak.

- 20:00etan Baratzondon *Iddwac* musika taldearen kontzertua.

Abenduak 8, astelehena

- 11:30etik aitzinera Ba-

ratzondon *etxeko produktuen eta sendabelarren mundua* erakusketa.

- 12:00etan frontoian bizkotxo lehiaketa.

- 19:00etan Biltokin *berrendua*.

BORTZIRIAK

Ferietako lehen sarietatik, lautik hiru Berara

ttipi-ttapa

Joan den urteko min-gain urdinaren gaitzak Lesakako feriak aziendarik gabe utzi bazituen ere, aurten buelta eman zaio eta azienda lehiaketan ere parte-hartze zabala izan zen azaroaren 20an. Guztira 295 abere aurkeztu ziren. Behi azientan 34 buru bildu ziren plazara eta sari gehienak Berara joan ziren: suizen kategorian lehendabiziko hiru sariak Berako Jose Antonio Igoak eskuratu zituen -190, 160 eta 100 euro-. Haragietako behietan ere Igoak irabazi zuen lehen saria -190 euro-. Bigarren eta hirugarren sariak, aldiz, Luis Olaetxea lesakarrarentzat izan ziren -160 eta 100 euro-. Zaldietan 257 buru aurkeztu ziren eta Lesakako Ion Muñoak lortu zuen lehen saria -125 euro-; bigarrena M^a Isabe Inda lesakarrarentzat izan zen -95 euro-, eta hirugarrena Marisol Otxoteko lesakarrarentzat -50 euro-. Azkenik, ahaztietan lau abere aurkeztu ziren eta lehen hiru sariak Miguel Angel Etxegarai bertarrarentzat izan ziren. 35, 25 eta 15 euro jaso zituen, sariengatik.

sarriha
gustategia okidategia
27 de octubre 2011 (baja)
34/90 (baja) (baja) 1.948 630 0199
www.sarriha.net

Instalazio elektrikoak
Muntaketak
Mantentze industrialak
Sare elektrikoaren analisia
IngeBrand
Fernando Destalzo Echeverria
Elektrikari-Ingeniaria
Labsaga, 22 - 3. Esk. - IGANTZI - 948 637 607 • 687 871 444
fernando.destalzo@ingenieros.net

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940
Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

LEGARRA
Produktu batzuetan kolore baikoitzak bere deskontua du:
DESKONTUAK
-60% eta -50%
-40 % oparietan
-30 %
-20 % oparietan
Tel/Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

ARANTZA

Abenduaren 7an egingen da Zahar Txoko elkartearen urte akaberako besta

Bazkarira joan nahi dutenek ortziral hau dute izena emateko azken eguna

Nerea ALTZURI

Zahar Txoko elkarteak abenduaren 7an egingen du urte akaberako besta. 12:00etan aurten hil diren elkarteak kideen oroimenez meza izanen da eta ondotik, bazkaria egingen dute egotzan. Bazkalondoan, berri, kantaldia eta dantzaldia izanen da Irune eta Itsaso Elizagoien etxalartarrekin. Bazkarira joan nahi duenak ortzirala baino lehen eman beharko du izena.

Aurtengo bestak berrikuntzak ere izanen ditu, megafonia berria estreinatzeaz gain, lau terdiko finala pantaila erraldoian ikusiko baitute.

Udal informazioa

Urriko udal informazioa jaso da etxeetan eta horko zenbait puntu aipatuko ditugu segidan. Gainerakoak hurrengoan landuko ditugu.

HERRIKO ARGITERIAREN

MANTENIMENDUA

Azken boladan arratsez

herriko argi batzuk itzaliak egoten dira. Izan ere, herriko langileak mantentze lanetan ari dira eta argia aurrezteko helburuarekin plan egoki bat bideratzen ari dira arratsean zein argi itzal daitezkeen ondorioztatzen. Udalak zonalde urbanotik kanpo, argiak erabakitzeko

obligazioa du berez, eta horregatik, nahiz eta bizilagun batzuen desadostasuna izan, diru-sarreraguti dagoenez, aurrezte aldera, neguan 23:00etatik aitzinera herriko farol batzuk itzaliko dira. Zonalde urbanotik kanpo, argiak erabakitzeko

liko dira. Aurrezteko berterte modu bat, kontsumo baxuko bonbillak erabiltzea da. Halere, guztia egokitzeko inbertsio haundiegia egin behar litzateke.

BABES OFIZIALEKO

ETXEBIZITZAK

Babes Ofizialeko Etxebi-

tzak herrian eraikitzeak interesa izanen luketen herritarren zerrenda bat irekia egon zen irailaren akabera arte. Baina ez da inor apuntatu. Udal informazioan aipatzen denez, EAJ-PNV alderdiak behin baino gehiagotan aipatu du plenoetan mota honetako etxebizitzak egitea geldiarazi nahi duela Udalak. Baina horri erantzunez, Udalak zera adierazi du txostean: «*inor apuntatu ez denez, ez du zentzu gehiegirik etxebizitzak egiteak*». Horrez gain, informazio gehiago nahi izanez gero, Herriko Etxea zabalik dagoela adierazi du Udalak.

Gorriak peñaren mus txapelketa

Bortzirietako Gorriak Osasunaren peñak lehenbizikoz mus txapelketa antolatu du bailaran barna. Azaroaren 14an hasi ziren partidak eta ortziral honetan, 23:15etik aitzinera, Pabloenean txapelketako mus partidak jokatu dira.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Haize berriak ludotekan

Julen Zelaia eta hezitzaileak bere ardura utzi ostean, urriaren 10ean Dindaia Fundazioak ludotekarako zaintzailea aukeratzeko probak egin zituen. Sei lagunek izena eman bazuten ere, azkenean bi aurkeztu ziren. Hala, frogak akautu ostean, Koldobike Gorostiza herritarrek hartu du lan hau. Bertzalde, Udalak zerbitzu honek dituen kostuak tikitze aldera, Igantziko Udalarik gonbitea luzatzeko asmoak ditu, beti ere, lehenasuna herriko haurrek izanik.

m bentamiguel
denda, jatetxea eta ostaldea
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdaiegia
Ibardingo Lepoa • 948 631 209

iparra
Real Iparagintza Alorri
FISIOTERAPISTA
Bikarria eta inbital
Kardiologia
Euskarri eta ortopediako
Ostiofisioterapia
00 33 559 48 19 32
Teléfono 2-18521426

mikkala
Didaxoa 41, Bera
TEL 948 630 500
A collection of colorful children's clothing and toys displayed on shelves and hanging.

ESKUALDEA

Ortziral honetan hasiko dira herriz herri nekazaritzako ibilgailuen azterketa teknikoak egiten

Baztan, Bortziriak eta Malerreka herrietatik pasako dira

ttipi-ttapa

Iaz bezala, aurten ere nekazaritzako ibilgailuen eta ziklomotoarren azterketa teknikoak egiteko aukera izanen da herriz herri. Hona hemen bakoitzean zein egunetan egingen den azterketa.

Herria eta eguna

AZAROA	
Bera	28
ABENDUA	
Lesaka	1
Etxalar	2
Igantzi	9
Arantza	10
Sunbilla	11
Donamaria	12
Urdazubi	15
Urdazubi	16
Amaiur	17
URTARRILA	
Erratzu	7
Azpilkueta	8
Arizkun	9
Arizkun	12
Elizondo	13
Beartzun	14
Lekaroz	15
Irurita	16
Irurita	19
Zugarramurdi	20
Gartzain	21
Arraioz	22
Ziga	23
Berroeta	26
Almandoz	27
Narbarte	28
Orabidea	29
Ornoz-Mugairi	30
OTSAILA	
Beintza Labaien	2
Urrotz	3
Oitz	4
Saldias	5
Ituren	6
Ituren	9
Ezkurra	10
Eratsun	16
Zubieta	17
Zubieta	18

Berria

Plan de Pensiones RGA
Super Seguridad

Plan de Previsión Asegurado RGA
Garantizado





Etorkizun oparoa
segurtatzeko

jar zaitez
Plan positiboan



nire aukera





Rural Kulturearen Pentsio Planak: zure etorkizuna guri Planetari dago

SUNBILLA

Gazte bazkaria datorren abenduaren 20an eginen da

Izena emateko azken eguna abenduaren 14a izanen da

Jaione OTXANDORENA

Bertze urte batez, Eguberriak baino aste-buru bat lehenago, hau da, abenduaren 20an, gazte bazkaria eginen da Ulibeltzak Elkarte-an. 11 urte dira bazkari hau egiten hasi zela. Alfredo Arretxea sukaldariak bere kuadrilla eta bertze kuadrilla pare batekin antolatuzuen lehen urteetan, baina urtetik urtera gazte gehiago gehitzen joan da eta azken urteetan 80 gazte inguru biltzen dira egun horretan.

Alfredok berak laguntzaile batzurekin batera prestatzen du bazkaria. Mahai inguruan kantu zaharrak eta abesti ezagunak kantatzen dira. Lagungarri izateko, plater bakoitzaren ondoan liburuxka bat izaten da kantuen letrekin. Ondotik musika.

Bazkari honetan izena emateko kuadrilla bakoitzeko arduradunari erran beharko zaio

eta aldi berean bazkari-joateko 24 euroak abenduaren 14a baino lehen ordaindu behar dira.

Eguberrietako prestaketak martxan

Eguraldia dagoeneko seinaleak ematen ari bazaigu ere, Eguberriak gainean ditugula ohartzea kosta egiten zaigu, baina poliki-poliki horien prestatketan ere hasi behar da.

Abenduaren 24an, urtero bezala, Olenzerorekin herriko itzulia eginen da, baina aste pare bat lehenago kantuen entseguak egiten dira. Berri hauek idazterakoan, entsegu horiek noiz izanen diren ez denez ezagutzera eman, eskolako haurrei ohartxoak bidaliko dizkie Guraso Elkartek eta herrian barrena ere kartelak jarriko dira entseguetara joan nahi duen guztiak jakin dezan noiz diren.

Udazken Loreak saioan

Aurreko ttipi-ttapa-ren alean erran bezala, ETB1eko kamerak Sunbillan izan ziren Udazken Loreak tele-saiorako irudiak grabatzen. Igande arratsetan emititzen da saio hau, 21:30ak aldera. Beraz, adi egon beharko dugu herritar batzuk saio horretan ikusteko aukera izanen baitugu.



Aurtengo gazte bazkaria iragarri duen kartela.



ARGAZKIA: AINHOA ETXEBESTE

105 kiloko basurdea

Azaroaren 9an, igandero bezala, herriko basurde ehiztariak mendira atera ziren eta hara nolako zortea izan zuen Igor Bertizek! Argazkian ageri den 105 kiloko basurdea hiltzeko aukera izan eta aski ongi probetu zuen. Argazkian Igor Bertiz, Juan Luis Apeztegia, Ibai Apeztegia, Oihan Apeztegia, Martin Jose Oryoeta Jose Antonio ageri dira.

AMEZTIA

Bokadilloak, razioak, sandwich-ak,



DEITU 948 450 028 eta eraman
%15 eko DESKONTUarekin



MALERREKA

Islamaren kontrako pintadak egin dituzte bi aldiz segidan Donezteben

Gertatutakoaren kontrako
salaketa aukeztu dute

tipi-ttapa

Kultura islamiarrari buruzko informazioa eman eta kultura horren aurka dauden aurreiritzien aurka borrokatzea zen Donezteben zabal-dutako erakusketaren helburua, baina badirudi helburu hori betetze-ko aunitz dagoela orain-digiteko.

Bidelagun Elkartek antolatua, azaroaren 3an islamari buruzko erakusketa zabaldu zuten Donezteben *Islama, guztion ondarea* izenarekin. Baina handik denbora guttira kultura horren kontrako pintadak egin dituzte ezezagunek, «mahoma zerria», «Nafarroa katolikoa» eta «moroak kanpora» bezalakoak idatziz. Erakusketa zegoen tokia-ren kanpokalde pintadekin azaldu zen azaroaren 10eko goizean, eta pintadak garbitu eta ezabatu arren, pintada gehiago egin zituzten azaroaren 11tik 12rako arratsean ere. Aldi horretan, gainera, erakusketa zegoen tokiko ateari silikona paratu zioten. Malerrekako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak gogor kritikatu du gertaera, eta salaketa

paratu dutela adierazi diote Ttipi-Ttapari.

Ura Doneztebeteik Sunbillara

Hamar urteren ondotik, joan den urteko ekainean ireki zuten Aurtizko ur biltegi berria. Proiektuak guztira 3.500 bizilagun hornitzen ditu, Ituren, Elgorriaga, Doneztebe, Zubiet eta Sunbillakoak, hain zuzen. Dena den, Sunbillakoa, azken faserako utzi zen eta orain, Doneztebeteik Sunbillara ura eramane duen azken fase horretako lanak abudo adjudikatuko direla aipatu zuen azaroaren 14an, feria egunean, Doneztebera egindako bisitan Amelia Salanueva Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuko kontseilariak.

Kontseilariarekin batera, Pedro Pegenaute departamentuko zuzendari nagusia eta beranduago, Begoña Sanz-berro Landa Garapen eta Ingurumen kontseilaria izan ziren. Miguel San Miguel Doneztebete alkateak feriak bisitatzeko egindako gonbidapena onartuta eto-



UTZITAKO ARGAZKIA

Telletxea Altzariak-en denda zaharrean paratua zegoen erakusketa, baina egun batetik bertara bertzelako itxura hartu zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Doneztebete Udaletxeko eta Nafarroako Gobernuordezkariak feri egunean elkartu ziren.

riak ziren Doneztebera.

Doneztebe eta Sunbilla arteko lan hauek 800.000 eurotik goitiko aurrekontua izanen dute eta Mendaurren Planaren azken fasea izanen da. Ura eramateko ez ezik, gas naturalaren kanalizazio lanak egiteko ere aprobeztatu da eta gehien bat, garai bateko trenbidean barna egi-

nen dira. Honela, bi lan hauek bereiz egitekotan sortuko liratekeen arazoak saihestuko dira.

Joan den urtera arte ura hainbat iturritatik hartzen zen: iturendarrek Bordenazar, Xelat, Lertxundi, Berrurta eta Iturriatik; Elgorriagak Malkoratik; Doneztebek Errotazarratik; Sunbillak Bidaso ibaitik, eta Zubietatik Txillotik. Azken lan hauek

akitzen direnean, ordea, denek Aurtitzen dagoen ur-biltegi berria erabiliko dute.

1,9 milioi euroko aurrekontua izan zuen obra Mariezkurrena enpresak egin zuen eta Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuak finantzatu. Malerrekako Mankomunitatea arduratzen ari da mantenimenduz.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA

USOA
nekozari
kooperatiba
ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

ERREKALDE
Plater Konbustiblerak
Pintak
Bostak
TFNOA: 948 630 259 - EZA

ITUREN

Asteburu Kulturala antolatu du Ibintza Kultur Taldeak abenduaren 5etik 7ra

Kantu afarirako txartelak abenduaren 4 baino lehen hartu beharko dira ohiko lekuetan

Arkaitz MINDEGIA

Azken urteetan bezala, ongi hornitua dator Ibintza Kultur Taldeak antolatutako Asteburu Kulturala. Abenduaren 5, 6 eta 7an ospatuko dira, eta hona hemen, egunez eguneko xehetasunak:

ORTZIRALA, abenduak 5

- 20:30ean *trikitilarien ibilaldia* karrikaz karrika.
- Ondotik Herriko Etxeko Ganbaran Andres Iñigoren hitzaldia: *Nor zen Iturengo arotza?* Eta eguna ongi akitzeko *talo jatea*.

LARUNBATA, abenduak 6

- 11:00etan haurrendako tailerrak eta gazte-txoendako *herri kirolak*.
- 13:30ean haurrendako *bazkaria* Herriko Etxeko Ganbaran.
- 16:00etan *mus txapelketa* helduentzat (16 urtetik gora).
- 16:30ean Gorringo Antzerki Taldearen esku-

tik Herriko Etxeko ganbaran, *1.028 kontuiz* neko ipuina haurrentzako.

- 21:30ean *kantu afaria* Herriko Ostatuan. Ondotik dantzaldia Joxe Angel akordeolariarekin. (Txartelak abenduaren 4a arte salgai, betiko tokietan).

IGANDEA, abenduak 7

- 18:00etan Herriko Etxeko Ganbaran *Ange Duhalderen* kontzertua.

Ander Erasun berriz txapeldun

Doneztebeko ferietan jokaturako Bigarren Mailako Nafarroako Txapelketan Ander Erasunek jantzi zuen txapela, 19:23ko denbora eginez. Horrela heldu den denboraldian Nafarroako maila nagusian aritzeko aukera izanen du. Zorionak berriz ere! Honi buruzko xehetasun gehiago 56. orrialdean aurkituko duzue.



ARGAZKIA: AINARA ETA EKIÑE MINDEGIA

Aio San Martinei

Zaila da hitzez bakarrik bestak deskribatzea baina argazkietan ikusi duzue, denetarik izan zen aurtengo San Martinetan. Ortzirale eguerdian herri bazkariarekin hasi eta astearte arratsaldean postre lehiaketarekin akitu arte, hainbat ikusgarri izan ziren Aurtitzen. Rock kontzertuak, trikitixa jaialdia, dantzak, aizkora apustua, haurrentzako jokuak eta bazkaria, pilota partidak... Zer erran? Ba... pena haundiarekin agurtu ditugula aurtengo ere, baina tira, datorren urterako guttiago gelditzen da.

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berriz enplegatu sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbaritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Bittiria, 71-behea • Tel: 948 637 050 • Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 • Tel: 948 133 328 • Faxa: 948 133 713

ARESO

Elizako lanak inauguratuko dira igande honetan

Egun berean sei gaztek sendotza hartuko dute

Juana Mari SAIZAR

Igande honetarako, azaroak 30, parrokiak arratsalde borobila pres-tatu du. Obren bukaera dela-eta, inaugurazioa egingen da. Artzapezpikua etorriko da, gaixoak bisitatuko ditu etxeetan, eta ondotik meza izanen da 18:00etan. Egun horretan, gainera, sendotza hartuko dute sei gaztek, eta gero, herri afaria izanen da Pake Toki elkartearen, nahi duen guztiendako. Artzapezpikua eta herrian zerbitzatu duten beste hainbat apaiz ere gonbidatuak daude.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Txan magoa abenduaren 3an
Nafarroako Gobernuaren Kultur Zirkuituaren barne, Txan magoa etorriko da abenduaren 3an. 17.00etan hasiko da ikuskizuna. Argazkian ageri dena, halere, UEMA eta Euskara Zerbitzuaren ekimenez etorri zen Lur Korta ipuin kontalaria da.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Asia eta Afrikari buruzko erakusketa
3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleek egin zuten, han eta hemen bildutako tresna, musika eta oiha-lekin. Oso interesgarria atera zitzaizen, hainbat bitxikeria ikusteko aukera egon baitzen. Arrakasta ikusita, gehiago egiteko asmoa azaldu zuen irakasleak, baina denbora da oztoporik haundiena.

ARANO

Jende asko bildu da hirugarren aldiz ospatu diren San Martin jaietan

Lehiaketako argazkiak oraindik ikusgai daude Kontzeju tabernan

Ainhua ANSA

Duela hiru urte hasi ziren, azaroaren 11ko bueltan, eta Olentzeroarekin eskean bildutako dirua erabiliz, herritarrei esker, emateko festa hau ospatzen! Aurtengoa bi egunetan igaro da:

Ostiralean, hilak 7, zikiri jatea antolatu zen Kontzeju tabernan eta 40 bat lagun gerturatu ziren afaltzera. Larunbatean, berriz, Kontukantoi ipuin kontalariren ipuinak entzunez goxatu ziren herriko txikiak San Roke Elkartean eta ondotik, he-

rriko Xabier Legarreta bertsolariak eta Hernaniko Bertso Eskolako Unai Agirre, Aritz Zerain eta Aitor Mendiluzek bertso-trama musikatu eskaini zuten udaletxeko ganbaran.

Bertsolariantzat pres-tatutako gaiak musika-tuak eman zituen Eñaut Agirrek Aitor Atxegaren gitarraren laguntzaz eta entzuleak erabat sartuta egon ziren bertsolarien moldatutako istorioan.

Jaiarekin bukatzeko, nahiko talo, hirugihar, txistor, gazta, txokolate eta gaztaina jateko aukera



ARGAZKIAK: ARANTXA ETA AINHUA ANSA

Gaztetxo zein heldu denek gozatu zuten San Martin jaietan.

izan zen, Garikoitz eta Ixiarrentzikitza eta panderoaren giroan.

Jada urteroko ohitura bihurtzen ari den festa honek berezitasun bat izan du aurtan. Izan ere, Arano-ko I. argazki lehiaketa antolatu du festen batzordeak eta, San Martin erakusketan jarritako argazkiak ikusgai dau-

de oraindik Kontzejun.

ARGAZKI LEHIAKETA

'Arano' gai hartuta antolatu da argazki lehiaketa eta izan duen harrerarekin oso pozik geratu dira antolatzaileak. Herri-tar askok hartu du parte eta argazki zaharrak, berriak, paisaiak, etxeak, jendea, aziendak, beste-

lako animaliak... denetarik agertu da. Aukeratutako argazkiekin datorren urterako egutegi bat egingo da, etxe guztietara herriko argazkiak irits daitezten. Ea hurrengo urteetan ere bide berari jarraitzen diogun!

Argazkiak aukeratzean, ez dira pertsona beraren bi aukeratu.

GOIZUETA

Dena prest dago larunbat honetan eginen den Feria egunerako

Aziendez gain, gorotz zabaltze erakustaldia eta aizkora desafioa ikusgai

Esteban AROTZENA

Mingain urdinaren gaitza medio, iaz Gobernuak paratutako mugak gaindituta, inoiz baino indartsuago heldu dela dirudi larunbat honetako, hilak 29, Feria berreskuratuen bostgarren edizioa.

Plazaren itxura aberasteko balioko du zalan-tzarik gabe Nafarroako Gobernuaren erabaki horrek. Dena den, azien-den presentziari garrantzirik kendu gabe, goiz osorako antolatuko diren hainbat kontuk diztira emanen diote egunari, Barrenitxeko belarsoko gorotz zabaltze erakustaldiak edo Unai, Haritz eta Josebaren arteko aizkora desafioak, esate baterako. Ehunka lagun bilduko dituen bazkariak eta ilunabarreko eta arratsko parrandak boro-bilduko dute herritar askorentzat urte guziko haundiena den egun hau.

Elkartasun bidaia Parisera

Abenduaren 8tik aurre-



UTZITAKO ARGAZKIA

Herritar eta bisitari guztiak baserritarrez janztea nahiko lukete Feriaren antolatzailleek, iaz lau gazte hauek egin zuten bezala.

ra Iñigo Elizegi epaituko dutela-eta, elkartasun bidaia antolatu da Parisera hilaren 11rako. Gazteek eta langabetuek 10 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta 25 euro gainerakoek. Izena Amaiarenean ahal den abudoena ematea komeni omen da. Epaiaketaren ostiraleko saiora joanen dira bidaariak eta larunbatean bueltatuko dira.

Sinadurak Nafarroako Gobernuan

Larrialdietako zerbitzua lehengora bueltatzeko eskatuz, guztira 512 sinadura aurkeztu dira Nafarroako Gobernuan. 1988az geroztik egon den zerbitzua joan den uztailaren 7an kendu zuen Osasunbideak, mediku eskasia dagoela argudiatuz. Orain 8:00etatik

15:00etarako mediku zerbitzua baino ez dago, eta herrian kontsulta 24 orduz zabalik egotea nahi da.

Baialtzinikin...

6.000 euroko saria eman diola Udalari Nafarroako Gobernuak labaderoan egindako zaharberritze lanengatik?

ARESO-LEITZA

Hiri Hondakinen Partzuergoan sartu dira bi Udalak

ttipi-ttapa

Nafarroako Hiri Hondakinen Partzuergoan sartu dira Areso eta Leitza Udalak, beste hainbeste herriekin batera. Hala onetsi zuten hasiera batez azaroaren 13an, eta biharamunaz geroztik, akordioa jendarean dago ikusgai. Hala egonen da, laneko 15 egun baliodun pasatu arte. Alegazioak aurkezteko epea bukatzean, kontrakorik ez bada behinik behin, behin betikoz onartuko da erabakia. Nafarroako Hiri Hondakinen Partzuergoa eskualde guztietako zabarren tratamendua modu orokor batean kudeatzeaz arduratzen da, eta Baztan, Bortziriak eta Malerreka Mankomunitateak lehendik sartuak daude horren barne.

APARAN, S.A.

BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 060
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

J. RAMOS

zolak akutzilatu eta barnizatzen ditut

Sakelekoak: 637 836 023 • LESAKA

BERA

Zero inguru klase guztietako lanak: (xomorro, zinsorra, armierma, kukuxu...) eta arratoi xagutzaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termito eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Elarbitasun Produktuak

Tel: 948 629 997 • Zumaia, 42 A • BERA

LEITZA

Nafarroako Mendialdeko abesbatzen topaketa eginen da larunbatean San Migel parrokian

Larunbatekoa izanen da Asketa abesbatzaren azken emanaldia

tti-tapa

Urtero egiten den Nafarroako Mendialdeko abesbatzen topaketak Leitzan du hitzordua aurtén, eta larunbatean, azaroak 29, izanen da. Aurtengo edizioa antolatzearen ardura Leitzari egokitu zaio, urtetik urtera topaketa honen tokia aldatuz joaten delako eta aldi honetan Asketakegin behar izan du.

Guztira zortzi abesbatzek hartuko dute parte: Mendi Abesbatzak (Doneztebe), Giltzarri Abesbatzak (Bortzirak), Ereintza Abesbatzak (Lizarrak), Camino de Santiago Abesbatzak (Allegi), Erkudengo Ama Abesbatzak (Altsasu), Etxarri Aranazko Abesbatzak eta Jeiki eta Asketa Abesbatzak. 19:30-ean hasiko da saioa San Migel parrokian eta ondotik, elkarrekin afalduko dute.

BERRI TXARRAK

Larunbateko topaketan bere agurreko saioa eskainiko du Asketak. Izan ere, jende eta batez ere mutil eskasia dela-eta, ibilbidea bukatzea erabaki du. Horri buruzko xehetasun gehiago 3.

orrialdean aurkituko dituzue. Asketako zuzendari Ainara Rodari elkaritzaketa egin diogu.

Lurren trukatzeko industria indartzeko

Herrian industria gartzeko, Nafarroako Gobernuak permuta edo lurren trukaketa egitea erabaki du herriarenak diren eta jabego pribatua duten lurren artean. Iñurrista industrialdean dagoen 1.363 metro koadro industriarako erabili nahi dira, baina lur eremu hori pribatua denez, Udalarena den beste eremu batekin trukatzeko erabaki du Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak. Hala, Beheko Errota inguruan dauden 1.983 metro koadroekin eginen da trukaketa.

Ordezkorik gabe Institutuan

Amazabal Institutuan 15 egunez irakasle baten ordezkorik gabe egon zirela salatu du Leitzako EAK ohar bidez. Institutuak Nafarroako Gobernuari ordezkapena egiteko eskaera «nahikoa denborarekin» eskatua



ARGAZKIA : PABLO FEO

Aurrerako emakumezkoak ere lanean

Aurrerako beste taldeek bezala, areto futboleko emakumezkoen taldeak ere hasia du denboraldi berria. Duela bi ale argitaratutako kirol gehigarrian emakumezkoen talde honen berri ematean, taldekideen izenak baino ez genituen aipatu. Baina oraingoan izen horien atzean daudenak ikusteko modua badugu. Arrate Otermin, Ainara Zabaleta, Arrate Begiristain, Judith Mariezkurrena, Birjina Mariezkurrena, Irati Barandiaran, Oihana Jaunikorena, Arantxi Sukuntza, Joana Sagastibeltza, Ainhoa Otermin, Alaitz Morato eta Irati Iparragirre dira taldeko jokalariek eta Iñaki Zabalo dute entrenatzailea.

ARGAZKIA : PABLO FEO

2009ko Leitzako egutegia kalean

Beste urte batez jarraian, Pablo Feo argazkilariak herriko irudiekin osatutako 2009ko egutegia kaleratu du. Egutegian ageri diren argazki guztiak Leitzakoak dira, eta egileak ttipi-ttapani azaldu dionez, horietako askotan «ikuspegi ezberdina ematen» ahalegindu da. Oraingoa egutegiak kaleratzen dituen laugarren aldia du Feok eta dagoeneko salgai jarri ditu. Besteak beste, honako txoko hauek ageri dira argazkietan, hilabete bakoitzeko bat: Izaletako izeiak, herriko ikuspegia, Astaizaga eta toki horretako labaderoa eta karobia, Sasaingo alertzeak, trenbidea, Peritza, Maimur estankoa eta Adur taberna...



zuela dio oharra, eta erantzunik ezaren ardurara Gobernuari leporatu

dio. «Aurreikuspenikeza eta Hezkuntza Departamentuan sortzen diren

arazoak konpontzeko gaitasun eskasa» izatea kritikatu ditu.

SOULE
hileta artea
Tfnoa. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

BEINTZAKO OSTATUA
T. 948 45 00 14
www.beintza.com
www.alfonsoarriaga.com
SITU BEINTZA LABARRIN

ORBELÁ
Cafetería - Bar

BAZTAN

Delegatuak diren eta ez diren zinegotzien ordainsari berriak onartu ditu Udalak

NaBairen aldeko zazpi botoekin eta UPNren kontrako seirekin atera da aitzinera

ttipi-ttapa

Zinegotziek ordainsari berriak dituzte hilaren hasieraz geroztik. Hala onartu zuen Udalak azaroaren 3ko plenoan, NaBairen aldeko zazpi botoekin eta UPNren kontrako seirekin. Erabaki berria aitzineko ordainsarien kontra UPNk epaitzietan aurkeztutako salaketaren ondotik etorri da. Izan ere, 2007ko irailan Udalak legealdi berriko ordainsariak onartu zituen, baina UPNk zinegotzi delegatuek eta ez zirenek jasoko zutenaren artean alde handiegia zegoela iritzita, helegitea aurkeztu zuen. Bada, Nafarroako Auzitegi Administratiboak onartu egin du Leopoldo Jaen zinegotziak UPNren izenean paratutako helegite hori eta horren harira proposatu zituen NaBaik ordainsari berriak. Horren arabera, honela gelditu dira:

-Zinegotzi delegatuak: Udaleko zereginean egunero aritzen direnak eta **astean 20 ordu baino gehiago** sartzen dituztenak, hilabe-

tean gehienez ere 1.200 euro jasotzen ahaliko dituzte, 75 euro eguneko.

-Zinegotzi delegatuak: egunero lan egin baina **astean 10 ordu baino gehiago** sartzen dituztenak, hilabetearen 800 euro jasotzen ahaliko dituzte gehienez, 35 euro eguneko.

-Delegatuak ez diren zinegotziak: gehienez 300 euroko ordainsaria izanen dute hilabetearen 15 euro eguneko. NaBaik proposatutakoaren arabera, zinegotzi hauei UPNko zinegotziak talde honetan sartzen dira bertzela bileretarako joateagatik gehiago jasotzea tokatuko balitzaie, 75 euro gehiago emanen zaizkie. Horrekin batera, zinegotziek egiten duten dedikazioa guztia zehatz aurkeztu beharko dute hilabetero.

Hori izan zen hilaren 3ko plenoan NaBaik aurkeztutakoa eta Udalean gehiengo izanik onartu zuena. Baina antza, UPN ez dago konforme eta horren kontrako helegitea jartzeko asmoa adierazi du. Plenoan bertan,



ARGAZKIA: ARANTXA GAMIO

Zigaurreko bestak ospatuko dituzte abenduaren 6an Aurtengoan abenduaren 6an izanen dira Zigaurreko bestak: San Andresak. Zigaurreko ermitan emanen den mezarekin emanen zaio beste hasiera. Hau xe izaten da urte guzian ematen den meza bakarra, gainera. Ondotik herri bazkaria egingen da eta gero, giro alaitzeko dantzaldia izanen da. Herriar guztiak gonbidatuak daudela jakinarazi dute antolatzaileek.

UPNko Jose M^a Garmentia zinegotziak, NaBairen proposamen berria Nafarroako Auzitegi Administratiboaren ebazpenaren «*guztiz kontra*» dela adierazi zuen.

Horrez gain, UPNk Udalak dituen «*zailtasun ekonomikoak*» direla eta, alkatearen eta korporazioaren lantsari eta dietak izozteko eskatu zuen.

UPNren eskaera

Bertze proposamena ere luzatu du UPNk. Elizondoko Jaime Urrutia karrika oinezkoentzako egokitzeko proiektuak eta elizako parkearen zati batean 50 autorentzako aparkalekua egiteko egitasmoak herritarren artean sortu duen «*gaitzespena*» dela eta, Elizondoko plaza eta bere ingurua zaharberritzeko proiektu berri baten deialdia egitea eskatu zuen, «*lehiaketa bidez eta one-na aukeraturaz*».

Mariano Izeta bertso sariketa

Azaroaren 13an abiatu zen Mariano Izeta bertso sariketaren hirugarren edizioa eta bi kanporaketa jokatu ondotik, larunbatean, hilak 29, egingen da finala Elizondon, 18:00etatik aitzinera. 16 bertsolari aritu dira lehiari eta horietatik seik baino ez dute lortu finalerako txartela: kanporaketa bakoitzeko lehen sailkatuek eta puntuazioaren arabera bertze lauk. Lerro hauek idazterakoan ez zegoen zehaztua finaleko bertsolariak zein izanen ziren, baina aipatu, parte-hartze zabala izan duela eskualdetik. Bertsolari hauek aritu dira: Iker Gorosterrazu (Ituren), Garazi Taberna (Bera), Jon Elizetxe (Gartzain), Maialen Belarra (Doneztebe), Egoitz Gorosterrazu (Ituren), Iñar Tainta (Lesaka), Patxi Castillo (Bera), Saioa Alkaiza (Iruña), Oier Lakuntza (Iruña), Iker Iriarte (Iruña), Aimar Karrika (Auritz), Aritz Saraguet (Betelu), Alazne Untxo (Ituren), Ekaitz Astiz (Iraizotz), Eneko Lazkoz (Etxarri) eta Diego Riaño (Leitza).

Kutsadura murritzeko

Udalak kutsadura murritzeko programa bat abiatuko du Almandoz, Aniz, Arraioz, Azpilkueta, Ziga eta Oronoz-Mugairin. Egitasmo horretan, hala nola, araztegiak instalatzea eta bertzela-ko neurri zuzentzaileak aurreikusi dira. Programa Toki Azpiegituren Nafarroako Elkarteak (NIL-SA) egindakoa da.

Gaztelu Cadizera

Joxemiel Gaztelu preso baztandarra Salamankako Topas espetxetik Cadizeko Puerto I.era eraman dute berriki. Preso daramatzan 11 urtetan lau aldiz aldatu dute dagoeneko. Euskal Herriatik 1.100 kilometrorara dago eta senitartekoek adierazi digutenez, bisitatzera joateko 30 orduko bidaia egin behar du, eta horrek 150 euroko gastua eragiten die.

Kontzertua Iruritan

Elizondoko Abesbatzak kontzertua eskainiko du igande honetan, azaroak 30, Iruritako Elizan. 12.00etan hasikoa da emanaldia.

POTTOKI
Baztandarra Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 561 883
info@pottoki.com
www.pottoki.com

Astelehenetik
larunbatera:
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

BAZTAN

Hondakin solidoen transferentzia planta herrian egitearen aurka daude Oronoz-Mugairiko bizilagunak

Proiektuari buruzko informaziorik ez dutela salatu dute

ttipi-ttapa

Baztan-Bidasoaldeko hondakin solidoen transferentzia planta Oronoz-Mugairiko Xolborro inguruan egitekoa da, baina ez dira horren aldekoak herritarrek, eta hala adierazi zuten urriaren 17an egindako batzarrean.

Herritarrek badakite Baztan-Bidasoako arazo nagusietako bat, guziok sortzen ditugun zaborren arazoari konponbidea eman behar zaio, eta horregatik, bat egin dute transferentzia planta eraikitzeko ekimenarekin. Baina ez dute uste Xolborro denik lekurik egokiena, ondo-ondoan Oronoz-Mugairi urez hornitzen duen iturria baitago. Kutsadura eta bertze eragozpenak sor daitezkeelako Xolborroan jartzearen guziz kontra daude eta inguruan leku egokiagoak eta arrisku guttiago sortzen dutenak badirela uste dute.

Gainera, herritarrek salatu dutenez, «herria-

ri ez zaio inoiz informatu Xolborroan planta hori jartzeko asmorik dagoenik, ezta proiektua idazten ari zirenik ere». Horregatik, eman ez dioten informazioarengatik protesta azaltzea ere erabaki zuten batzarrean eta hemendik aitzinera, transferentzia plantaren behin betiko kokapenaz eta herriarengan eragin zuzena izan dezaketen bertze gaiei buruz informazio zuzena ematea eskatu diete proiektuan zerikusia dutenei.

Bere garaian, N-121eko lanen ondorioz, Xolborroko iturri hori galdu egin zen, baina lan haundia eginez, berreskuratu egin zuten. Orain, herritarrek ez dute iturria berriz galtzen utzi nahi.

Zuzendaritza berria Bertanen

Bi urte pasatu dira Baztango merkataria eta zerbitzuen elkartearen sortu zenetik, eta hasiera hartan adostu bezala, elkartearen zuzendaritza ba-

tzordea berritu dute bi urteren buruan. Azaroaren 10eko bilkuran erabaki zuten zein izanen diren datozen bi urteetan zuzendaritzan egonen direnen izenak. Blanki Letona (Albaitaritza), Jaime Biguria (Eskiz informatika), Mikel Sobrino (Fantxike), Ana Goñi (Pottoki), Mari Jose Alaña (Malkorra) eta Jose M^a Ursuegi (Frantsene) dira kide berriak. Halere, orain arte zuzendaritzan egon diren hiruk batzordean segituko dute kide berriak kargura egokitzeko joan daitezkeen. Asun Irigoien (Ipingi), Isabel Gonzalez (Virgilio oinetakoak) eta Marisa Tenak (Dia) segituko dute uda bitartean zuzendaritza berriari laguntzen.

Birziklatzeari buruzko erakusketa

Nafarroako hainbat udalerritan ibili ondotik, hilaren 17an ailegatu zen birziklatzeari buruzko erakusketa Baztanera eta



ARGAZKIA: ONDIKOL

Hasier Larretxearen 'Azken bala' Azken bala izen horixe du Hasier Larretxearen arraiotarraren azken liburuak. Joan den urtean argitaratu zuen, eta hainbat sari jaso ditu olerkia liburu horrekin. Aurten, berriz, bi hizkuntzetan kale-ratu du, euskaraz eta gaztelaniaz. Azaroaren 15ean aurkeztu zuen Arizkunenea Kultur Etxean.

ortziral hau, azaroak 28, arte Arizkunenean egonen da. *Helburua: birziklatzea* izeneko erakusketa hau 18:00etatik 20:30era dago irekia.

Erakusketarekin batera, hainbat datu eman dituzte: 2005ean baztan-dar bakoitzak 379 kilo zabor sortu zituen urtean, 1,04 kilo egunean. Paratu diren birziklatzeko edukiontziei esker, 2005ean 2.293 tona gai organiko eta bertzelako bildu ziren, 64 tona ontzi

berreskuratu ziren, erabilitako paperaren %38 berreskuratu zen eta 269 tona beira jaso ziren.

Ornoz-Mugairiko kontsulta zabalik

Aitzineko alean Osasunbideak Oronoz-Mugairiko larrialdietarako kontsulta itxeko asmoa zuela aipatu genuen, baina azkenean ez dute kenduko eta Oronoz-Mugairiko kontsultategiak lanean segituko du orain arte bezala.

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iñufea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea
T: 948 45 1050
N-121-B, 66 km
TAMAIUR

ZJ
Zalain
Jatetxea - hostala
14 logela bainu
eta TBrekin
Zalain auzoa s/g
Tinao: 948 63 09 67
BERA

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte karkika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

ITZALALDIA

HELDU DA



2010eko apirilaren 3an telebista analogikoak emitzeari utzi, eta LTDari emanen dio bidea. Horri esker, kate kopuruak gora egingen du, eta irudien kalitateak hobera. LTDa hartzeko, behar den kasuetan behin antena egokituta, deskodegailua jarri beharra dago, edo bestela LTDaren deskodegailua daraman telebista izan.



Plan
Auzanza

2012 ZUREKIN
BAGOAZ AURRERA



www.elapagon.es

SARA

Larrungo trenean usaian baino merkeago upatzen ahalko da Telethonarekin

Aspaldiko partez denboraldi ona izan da uso ehiziko sareetan

Xan HARRIAGUE

Usaian bezala, Telethonaren aldeko diru bilketa egingen da abenduko lehen larunbatean. Turismo bulegoak Larrunera trenean upatzea eskainiko du usaian baino merkeago. 10 euro bainik ez dira ordaindu behar, eta sos guztia ezintasuna duten jendearentzat eta eritasunen ikeritzeko joanen da. Trena 14:30ean aterako da San Inaziko geltokitik, eta leku berera itzuliko 17:00ak aldean. Eskaintza denei irekia da, Telethona lagundu nahi dutenei, baita prezio merkeago bat baliatu nahi dutenei ere.

Ondotik txokolet esnea eta pastizak salduko ditu Lurberrin Sarako Urtxintxak eskubaloitaldeak. Horko etekinener-

dia ere ikerketarako erabiliko da.

Bezperan hiru eskoletako haurrek ere haien laguntza emanen dute eta Xiba euskal jokoak egingen plazan. Sosa biltzeko herritarrei haien babestea edo sponsorizatzea galdetuko dute. 13:30ean hasiko dira eta 16:00ak irian finituko. Hortan ere lagundu nahi duten guztiak ongi etorriak izanen dira.

Gazte eguna

Gaztetxeak auzo herritako hainbat elkarteekin batera gazte eguna antolatu du heldu den larunbaterako. Goizean txistulariak, txalapartariak eta bertsolariak ariko dira plazan. Eguerdian elkarrekin bazkalduko dute, eta arratsal-



UTZITAKO ARGAZKIA

Xarbo Errekako bestak umore ederrean iragan dira

Xarbo Errekako bestak ospatu dituzte bigarren aldikoz. Hazilaren 15ean auzoko 70 bat lagun bildu ziren elkarrekin bazkaltzeko, afaltzeko, baita ahate jokoan edo sokatiran aritzeko ere.

dean hainbat joko egingen dira, euskal jokoak, bertzeak bertze. Arratsarako afaria antolatu dute, eta ondotik kontzertuak eskualdeko talde batzuekin, Gaztetxe Band, Garraxi eta Aizkor erauntsia tarteko.

Uso denboraldi ona sareetan

Azken urteetako uso denboraldi hoberena

egin dute herriko sareetan. Deus konparatze korik ez lehengo garaiekin, baina aurten 99 uso harrapatu dituzte, hala ere.

Bertsu xapelketa

Karlos Aizpurua bertsolariak Ipar Euskal Herriko bertsulari xapelketako 7. postuan finitu du. Hobeki egiten ahal zuen, baina finalean sartzea

kosta zitzaion, eta ongi bukatu bazuen ere, gaineratiko bertsolariek tartea egina zuten jadanik.

Janari bilketa

Iraungitzen ez diren janarien bilketa egingen da ortziralean Herriko Etxean.

Beharrean direnei banatzeko janariak goizean bilduko dituzte, 9:00etatik 12:30 arte.

URDAZUBI

Errotaren Eguna Urdazubin egingen da heldu den urtean

Zubietaren lekukoa hartu du alkateak

ttipi-ttapa

Heldu den urteari begira, aurten Zubietan egin den Errotaren Eguna antolatzeko ardura Udalak hartu du. Azaroaren 15ean egin zen aipatu Errotaren Eguna Zubietan, eta han hartu zuen San-

tiago Villares alkateak, Patxiku Mitxelena Zubietako alkateak emandako txanda.

Cederna-Garalur Elkarteak abiatu zuen Errotaren Eguna antolatzeko ekimena, eta hurrengo aldietan ere segida eman nahi dio-

te, eskualdean ez direlako gutti martxan dauden errotak: Amaiur, Etxalar, Bera, Senpere... Hurrengo urtekoa Urdazubin egindakoa, ikusiko da nork hartuko duen bertze edizioak prestatzeko lekukoa.



ARGAZKIA: ARANTXA ARREGI

Villares eta Mitxelena, Urdazubi eta Zubietako alkateak, lekukoa batek bertzeari pasatu ondotik.

SENPERE

Ekhi Erremundeguy seigarren tokian sailkatu da Iparraldeko lehen Bertsulari Xapelketan

Martxoaren 30ean Senperetik pasako da Korrika

Franck DOLOSOR

Errebelazioa. Hitz hau baliatu dute zonbait berrikerarik Ekhi Erremundeguy bertsulari gazteaz mintzatzeko. Ekhi Baionan sortu eta bizi da baina bere aitaren familia Senperetara da. Hazilaren 15ean Donibane Lohizuneko Jai-Alain jokatu zen Ipar Euskal Herriko lehen Bertsulari Xapelketan seigarren tokian sailkatu zen. Umoretsu eta aisetasun piska batekin agertu zen taula gainean. Dena den, kartzelatik ateratzean urduritasun doi bat ere sentitu zuen taula gainera itzultzean bi mila bertsuzaleen aitzinean. Etxekoak izigarri kontent dira semeak maila ederra erakutsi baitu.

Ekhi 19 urte bete ditu berriki eta ikasketak ikastolan egin ondoren, orain Zientzia Politikoak ikasten ditu Bilbon. Duela hamar urte hasi zen bertsutan Patxi Iriart, Gilen Hiribarren eta Mizel Mateorekin batean. Fi-

nalean ongi aritu zen baina puntu batzuk galdu zituen eta horregatik ezin izan du sailkatu Euskal Herriko finalean parte hartzeko. Dena den, etorkizun oparoa duela frogatu du. Primadera ez du oraino hogoi aldiz ikusi eta halere jadanik ederriki ari da bertsutan.

568 pundurekin Amets Arzallus nagusitu da eta Sustrai Colina izan da txapeldunordea 544,5 punturekin. Miren Artetxe izan da hirugarrena (538), Maddalen Arzallus laugarrena (525,5), Odei Barroso bostgarrena (507,5), Ekhi Erremundeguy seigarrena (503,5), Karlos Aizpurua zazpigarrena (490) eta Xumai Murua zortzigarrena (466). Duela guti arte, bertsularitza galtzekotan zen baina zaleei esker ohitura hau berpiztu da, gazteak berriz jostatzeko dira euskararekin.

Ongi etorri Korrikari

Bi urtetik behin egiten

den AEKren aldeko hamaseigarren lasterkaldia 2009ko martxoaren 26tik apirilaren 5a arte egingen da eta aldi honetan Tuter eta Gasteiz lotuko ditu. Senperen martxoaren 30ean, astelehen goizean, pasako da Korrika. Lekukoa uztarriztarrei hartuko diegu azkaindarrei emateko. Ttipi-ttapa, has zaitezte prestatzen, badator Korrika...



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

Ekhi etorkizun oparoa duela erakutsi du historian Ipar Euskal Herrian jokatu den lehen zoingehiagokan.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Lagunen arteko afariak

Udazkenarekin batera, klaseetako afarien denboraldia hasten da. Berriki 60 urte bete dituzten senperarren biltzarra ospatu da.

ZOANSA

SEAT VW HYUNDAI AUDI

MARKA GUZTIAK KONPONKETA

Baniarta, 2 - Alkalaga Industrialea

LESACA (sarrera Beratik)

Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

HERRINO ETXENGO EDENTEGIA

Café de la Mairie

Tel: 0559542519

Makxan eta Véronique

SARA

ARMUA JATETXEA

Tel: 948 600 131

Zaparramutiko auzoa, 3 km. IRTAKOZ

MONTXO OSTATUA


Dantxarinetatik 2 km-tara

TABAKO-DENDA

ANZAN-BORDA - YRDZVBI

Egunero irekia 10:30etik 02:30era

Eraikuntza gehigarria



**Iñaki Alzuiet
margoak**

Pintura dekoratiboa eta industrialia • Dekorazioa: estukoak, beladurak
Fatxadak • Barnealdeak

Lakatua eta barnizatuak kabinan • Pladurra
Harri eta egurra arenadorekin garbitzen da

Tel.: 659 862 417 • Itur-ttupi etxea - Landibar Auzoa • 31711 URDAZUBI
pinturas.alzuiet@yahoo.es

Ark_b arkitektura bulegoa
 Irteerak: Irteerak, Irteerak, Irteerak

Celia Lora Ranz
 Huarte Gatzol 7 - 31860 Leiza - 64500478 tel

AGUSTIN PORTU aroztegia

Ameltziaga - Kaule auzoa • BERA
 Tfnoa: 948 631 058 • 670 422316

da

astizanaia
 ZURGINDEGIA

info@astizanaia.com

Aldude etorbidea, 5
 31700 ELIZONDO

699325449
 690687995



BERTIZARANA TAILERRAK

ERRETEGIAK ETA BARBAKOAK
 ESTRUKTURA METALIKOAK
 ATEENDAKO MEKANISMOAK - ATEAK
 BARANDA ETA FORJA ARTISTIKOA

Tel-Faxa: 948 592243 • NARBARTE



Irteerak • BERA • Tel: 948 63 13 17

HARRI NATURALA

ATERATZEA ETA LANTZEA

- Antzinaleak
- Angelak
- Orma antzinak
- Lailak
- Alak
- Arkak
- Pilareak
- Taimiak
- Erteak
- Moldurak
- Zokak
- Hileak
- Marrazkiak

Abujandadua Zahar antzekoa
 Mazinoa Txapetua

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK



INSTALACIONES ARKALE c.b.

- Gas instalazioak
- Iturgintza orokorrean
- Berokuntza eta aire egokitua
- Mantenu lanak
- Zintzilikatuta egiten diren lanak

Tfnoa: 948 450 172 • 610 509 177
 Amesta, 10 • DONEZTEBE



Aluminiozko leihoak, Kontraleihoak, Ateak
 Garajeko ateak eta Barandilak

Otsango Auzoa, 7 - Pat. - LESAKA • Tel/Faxa: 948 638 297

apittu@telefonica.net



ERAIKUNTZA MAKINA ETA
 ZERBITZUEN ALOKAILUA

- Kamioi grua teilatuak egiteko eta moldatzeko
- Materialen garraioa
- Mailu, elektrizitate sorgailuak andamioak kompresorak...

Leizako Bidea - Tel: 948 451 703 / 659 702 604 - DONEZTEBE

OSKARIZ anaiak

Mota guztietako
 argin lanak

Tel.: 948 452 225 • 619 406 388
 Mainerrena etxea • ELIZONDO




PYL sistemak • Eskaiola
 Pladurrezko sabaia eta tabikeak
 Isolamendu termiko akustikoak

Etxe moldatzetan espezializatuak • Apalategiak
 Sabai desmuntagarriak • Babes-pasiboa




Errekaldea Industrialdea z/g • D pabelloia • 31191 BERIAIN
 Tel.: 948 310 055 • Fax 948 310 054 • aislamientosberiaín@aislamientosberiaín.com


Ongi pentsatu beharreko erabakia



KOLOREAK AUKERATZERAKOAN



Koloreaz gain, aunitz erabiliko dugun gela bateko zolan iraunkortasuna ere aintzat hartu behar da, hau da, eguneroko desgasteari aitzin egiteko gai izanen dena hautatu behar da.



KOMUNETAKO ZERAMIKA

Komunetarako pizarra-baldosak deiturikoak edo zeramikarekin eginak egokiak dira, hezetasunak egin dezakeen erasoaren aitzinean egonkorrak direlako. Urteen joanean itxura mantendu egiten dute gainera.

Etxebizitzaren ezaugarriak aztertu eta norbere gustuak kontuan hartzea da, azken batean, zola egokia hautatzeko sekretua.



PARKET FLOTATZAILERAREN EROSOTASUNA

Egurrezko piezak dira, tailer espezializatueta ita-tsiak eta bernizatuak. Egurrezko zola hauek ez dira lurrean ez itsasten ezta iltzatzen ere.


Edozein gainazaleraren gainean erabil daiteke, baita lehenagoko zola baten gainean ere. Garbitzeko, ura eta ozpina nahastea gomendatzen dute profesional batzuek; beste batzuek, berriz, ura aski dela diote. Edozein modutan, mantentze egoki baterako hobe da ur gehiegi ez botatzea.

ALEMAN
zerrategia, SL

Terima

Portxeak tamaina egokian
Laminatuak
Egur trinkoa
Tratamentuak

Frantziako erpe: z/g • ERRATZU • 948 453 173



ba
bidasua arkitekturea bulegoa

Arizaga 24 48940 Leizor (Bizkaia) - Tfn 944 431 430 - E info@bidasua.com



**Red
Nasursa**
OPINAS COMERCIALES
ESKUALDEKO BULEGOEN SAREA

**Etxebizitza eta hirigintzari buruzko
Aholkularitza teknikorako
Eskualdeko bulegoa**

**Herritarrendako zerbitzuak
Udalendako zerbitzuak**

Behin-behineko bulegoa: Juaneas Ebea
Tel. 948 456 103 • Fax 948 451 320
izatean-izatean@nasursa.es • www.nasursa.es
2009ko urteraineko antzinako bulego berrita
Merkatarien karrera, 6 DOÑEZTIBE



LUCIANO IRIARTE S.L

ESKABAZIOAK · ESKOILERAK
LUR MUGIMENDUAK

Tel: 948 592 139 - 649 947 181 - 649 947 182

NARBARTE



TRANSTXAKAIN

TRANSTXAKAIN, s.l.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY



MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

- Kamioia 15mko garabiarekin
- Kamioia 32mko garabiarekin
- Kaja baskulatzailarekin
- Zisternarekin
 - Putzu septikoak • Tuberietako ataskoak kentzea
 - Ura lekuz aldatzea

Otsango Ind. 14 • LESAKA • transtxakain@yahoo.es
Tfnoak: 669 840 198 / 948 638 052 • Faxe: 948 627 578



ERAIKIN HISTORIKOA ZAHARBERRITUA

ERAIKUNTZA BERRIA
3 etxebizitza trasteleku eta
igogailuarekin



110m², sukaldea, egongela,
2 logela, 2 bainugela eta
estudioa



74m², sukaldea, egongela
2 logela, bainugela eta
trastelekua



Baztango
promoción inmobiliaria

**Etxebizitzetan moldaketak
Tasazioak eta balorazioak**

**Ondasunen salmenta eta alokairua
Lurzoruen gestioa**

Tel. 948 630552
Faxe 948 630106

Kanttonberri, 4
31780 Bera. Nafarroa



ETXALAR

Erabilera industrialerako
partzelak

- N121A errepidearen ondoan
- 900m²ko pabilioia
- 180m² solairuartera barne
- 11metroko altuera
- Zubi-garabiarendako mentsula
- Emaite-data: 2010eko udaberrian



BERA Partzela industrialak

- N121A errepidearen ondoan
- Errepidetik 50m.ra
- 182 - 277m² arteko
azalerak
- 9metroko altuera
- Lehen kalitateko materialak
- Berehala emateko




LANTEGIKO MOBLEAK

Aulkiaren egokitasunak zerikusi zuzena du bizkar eta lepoko oinazeak izatearekin



Lantokia izan ohi da eguneko ordu gehienak pasatzen ditugun lekua, eta horregatik, ezinbertzekoa da lanean eroso egotea eta mobleak ahalik eta egokienak izatea. Horrek guztiak gure umorean eraginen du, eta ondorioz, lan egiteko dugun motibazioan ere bai. Bulego batean lan egiteko, aulkia egokia izan behar du. Behar bezalakoa ez bada bizkarreko arazoak izanen ditugu eta epe luzera osasun arazoak ere sortuko zaizkigu.

Ezaugarrien eta duten funtzioaren arabera, aulki eskaintza ugaria dago merkatuan. Batzuek beso-euskarriak dituzte, eta halakoak, atsedean hartzeko onak dira. Horiez gain, bizkarraldean neurri desberdina duten aulkiak ere badaude. Horiek batez ere, ordenagailu aitzinean denbora luzez egon behar dutenei bideratuak daude.



Aulkiak gurpilak izan ditzakete, edo ez. Baina gurpilduna izatea onuragarria da, horrek mugikortasunerako aukera ematen duelako. Aulkia bira ematen duena izatea ere ez da kaltera, mugikortasun handia ematen baitu horrek ere. Mahaiaren altuerara egokitzeko aukera ematen duten aulkiak gomendagarriagoak dira, altuera nahikoan ez egotea izan ohi baita bizkarreko edo lepoko oinazeak sortzearen arrazoi nagusietako bat. Buru-euskarria izatea ere komenigarria da. Azken batean, lanerako txoko eroso bat egokitzea da kontua, norbere osasunari kalterik egin gabe.

arteka 
arkitektura arquitectura

Juan Mari Aleman - Patxi Valer

Etxebizitza berriak
zaharberritzeak
nabeak/lehorrak...

Tel: 948 580 910
Fax: 948 452 434

Plaza Euzkoan 1-1A
48940 Elgoibar (Gipuzkoa)
Navarra (Leizor)

MIGUEL ETXEBERRIA
zurgindegia

zurgin lanak orokorrean

Tel: 948 450 310 • Mugikortasun: 608 677 997
ELGORRIAGA

EZKAIN eraikuntzak S.L.



Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956

AROSZTEGI
METALIKOA

S. Odríozola
B. Huici

Ateak • barandak
estruturak • eskailerak

Tfnoa: 948 631 244 • Faxa: 948 625 564

Alkaiaga Industrialdea • Eluxa karrika • Pab. 3/1B

e-posta: sodriozola@wanadoo.es

31789 LESAKA





EURIBORRA

Markak guztiak hautsi eta gailurra jo ondotik beheranzko bidea hartu du

Gora eta gora ari zen, marka guztiak hautsiz, baina azkenean, beheranzko joera hartu du Euriborrak, Europa osoan hipoteka gehienak kalkulatzeko erabiltzen den indizeak. Azken urteotan beheiti egin gabe goratzen ari zen, eta 2008aren hasiera bereziki adierazgarria izan zen gailurra jo zuelako. Urriaren 9an jo zuen goia Euriborrak, %5,512ra ailegatuz. Baina krisi ekonomikoaren eraginez, Europako Banku Zentralak interes tasak jautsi dituenaz geroztik, beheiti dator. Adibide bat emate aldera, demagun Euriborraren batez bertzekoa %4,219koa dela –azaroaren 19an horixe zen euriborraren indizea–, eta 25 urtetan 240.000 euroko hipoteka ordaindu behar dugula. Gisa horretara, 1.296,01 euro ordaindu beharko genituzke hilabetea. Aldiz, urteetan gibelera eginez, 2003ko azaroan, indizea %2,410ean zegoen. Hartara, **240.000 euroko hipoteka 25 urtetan ordaindu behar izanez gero, 1.065,83 euro ordaindu beharko genuke hilabetea, beraz, duela bortz urte baino 230,18 euro gehiago hilabetea, eta 2.762,16 euro gehiago urtea.**

Europako Banku Zentralak interes tasak jautsi eta urriaren erdi aldera hasi zen jausten Euriborra. Martxoaz geroztik ezagutzen ez zen mailara jautsi zen orduan indizea. Azaro hasieran berriz jautsi zituen interes tipoak Europako Banku Zentralak, %3,25era. Horrekin diruaren balioa 2006ko urriaz geroztik egon ez zen mailara jautsi zen. Halere, adituen arabera, gehiago jautsi beharko luke maileguetan eragina izan dezan.



ESTHER ATEAK

Egurrezko eta aluminiozko
lan mota guztiak

Zarandía 9 • Tel/Fax: 948 627 584 • LESAKA
M. 626 500 459 • esther-ateak@terra.es

EZPELURA ITURGINTZA S.L

Berokuntza • Gasa
Elektrizitatea • Eguzki plakak
Zoru bero emaila

Tfona.: 606 337 427 • OITZ (Nafarroa)

FERRETERIA BAZTAN

Santiago, 79 • Industrialdea • ELIZONDO
Tel.: 948 580 423

LABORRA-LARUMBE
arkitektoak

Santiago, 54 • 1.
31700 Elizondo (BAZTAN)
Tel: 948 580 122
Faxa: 948 581 888
gabriel@laborra.com

Konstituzio Plaza, 3 • 1.
3 eta 4 Bulegoak
31600 Buntata
Tel eta Fax: 948 134 563
jmlarumbe@relena.com




Itxura guztien arabera, hipotekak kalkulatzeko erabiltzen den indizeak jausten segituko du

Jautsierak jautsiera, hipotekak berritzea noiz tokatzen den ere kontuan hartu behar da. Izan ere, mailegua urtean behin berrikustea izan ohi da ohikoena, eta beraz, heldu den urteko lehen hiru hilabeteetan eguneratzen dutenak izanen omen dira sakelean onura somatuko duten lehendabizikoak. Horrela diote adituek.

Mailegua berrikusten denean, normalean aitzineko bi hilabeteetako Euriborraren balioa hartzen da erreferentziazat. Hartara, hipoteka urrian eguneratu behar bada, abuztuko indizea kontuan hartzea izaten da ohikoena. **Abuztuan %5,323**koa izan zen Euriborraren batez bertzekoa. Aldiz, mailegua abenduan berrikustekotan, urriko Euriborraren balioa hartuko litzateke kontuan, %5,258, alegia. Eta urtarrilean eguneratu behar dutenek, **azaro**ko indizea (%4,219 ingurukoa) hartuko lukete erreferentziazat. Edonola ere, berrikusketa egiteko irizpidea banketxe bakoitzaren araberakoa da.

Adituen iritziz, hipotekak kalkulatzeko erabiltzen den indizeak jausten segituko du, eta Europako Banku Zentraleko lehendakaria den Jean Claude Trichetek urtea bukatu baino lehen diruaren balioa ere jautsiko dela iragarria du. Ikusi beharko da zein neurritan egiten duen hobera mailegua duten herritarren sakelak.

Azken lau urteotako gorabeherak



2008ko azaroaren 19an	... %4,219
2008ko urria	... %5,258
2008ko iraila	... %5,384
2008ko abuztua	... %5,323
2008ko uztaila	... %5,393
2008ko ekaina	... %5,361
2008ko maiatza	... %4,994
2008ko apirila	... %4,820
2008ko martxoa	... %4,590
2008ko otsaila	... %4,349
2008ko urtarrila	... %4,498



2004ko abendua	... %2,301
2004ko azaroa	... %2,328
2004ko urria	... %2,316
2004ko iraila	... %2,377
2004ko abuztua	... %2,302
2004ko uztaila	... %2,361
2004ko ekaina	... %2,404
2004ko maiatza	... %2,297
2004ko apirila	... %2,163
2004ko martxoa	... %2,055
2004ko otsaila	... %2,163
2004ko urtarrila	... %2,216

GAZMENDI

ERAIKUNTZAK

DONIBANE KARRIKA
GURE BORDA • SUNBILLA
T. 948 450 130 - 948 451 666
M. 619 469 784

GONZALO FERNANDEZ LAMANA y A.T., S. CV.

Ingenieri Tekniko Industrala

- Bulego teknikoak:
 - Proiektuak, obra zuzendaritzak, etab...
- Instalazio elektrikoak
- Etxeko eta industriako elektrizitatea
- Enpresen mantenimendua, etab...

DANIEL FERNANDEZ TELLETXEA

- Baimendutako instalatzailea
- Instalazio fotovoltaiakoa
- Eguzki-energiako plaketak

Elizagibela, 5 • Tfnoa-Faxa: 948 450 760 • DONEZTEBE

EZPELA

Zurgindegia

BERA

678 350 412 (Eloy)
617 081 335 (Matias)

OLAZAR aroztegia S.L.

- aroztegi metalikoa
- itxiera metalikoak
- aluminio aroztegia
- estruktura metalikoak
- zerrailgintza
- galdaragintza
- ate baskulatzailleak
- ate automatikoak

Aparan Ind, 1
Tfnoa - Faxa:
948 456 183
Mugikorra:
649 139 365
DONEZTEBE

ILLURDI zurgindegia

- ateak
- tarimak
- parketak
- leihoak
- eskailerak
- teilatuak
- portxeak
- teilak
- isolamenduak

Klase guztietako zurgin lanak

670 30 35 20
680 98 68 36
31700 ARANTZA Nafarroa

Gonzalez anaiak
aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa

F.Joakin Iriarte, 5 • ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 337

ION DOZAGARAT OIL

Igeltseritza orokorra

Itzea, 5 • BERA • 689 046 720

Tfnoa: 649 853 440
LEITZA

TXARAGORRI
iturgintza

JOSE LUIS ITURBIDE IRISARRI
LIXATU ETA BERNIZATUAK

TXIMINDO, 48 A - 2C
31713 ARIZKUN
NAFARROA
TEL: 948 45 30 08
MUGIKORRA: 696 35 74 96

GORRITZ
ERAIKUNTZAK-ESKABAZIOAK

LEITZA (Nafarroa) TEL: 948 530 140 / FAX: 948 530 996

ESiP

Energia Berriztagarrien
Instalazioa eta Ingeniaritza

Eguzki-energia termikoa
(Kontsumoko ura berotzeko
Berogailuak) (Igerilekuekako ura berotzeko
Eguzki-energia fotoboltaiak eta halze-energia
(Etxe bakartuak elektrifikatzeko
(Sare nagusiari elektrizitatea saltzeko
Biomasa (Pellet) galdarak
Eskatu espazio zuriakontua inolako
konpromisoarik gabe

ALTSASU - Isasia Industrialdea, 4 pabiloia
www.esipsolar.com info@esipsolar.com
T eta F: 948.564.024 Mug: 609.74.52.25

Matias MITXELENA
eraikuntzak

— Etxeak
— Zaharberritzeak
— Teilatuak

Tfnoa: 948 637182 • 608 777 908 • LESAKA

PATXI ZAMORANO
KALITATEZKO LANA ETA PRODUKTUAK

- Barnizatuak eta lakatuak kabinan
- Etxebizitzak eta Lokalak
- Fatxadak

Leitzako bidea • DONEZTEBE
Tel. 948 450734 - 606 377424

Eguberrietako Salmenta berezia

Zakuratutako malgukizko lastaira
415€ (1,50 x 1,90 m)

Soiazko lastaira biskolastikoa
595€ (1,50 x 1,90 m)

Doako finantzaketa 12 hilabete arte.
Colchoneria Gorrichoren bermearekin.

Colchoneria Gorricho
atsedenaren etxea


QIAC
Nafarroan sektorean Kalitateko Merkataritzaren UNE 175.000 ziurtagiria lortu duen lehen denda

Tafalla, 26 bis
Benjamin Tuterakoaren kalea, 8
Sarasate pasealekua, 36



PAPER PINTATUAK

Etxeko paretei aire berri bat emateko, moble guztiak mugitzen ibili gabe



Paper pintatuak itzuli dira! 1960. eta 1980. hamarkadan hagitz ohikoa zen paretak dekoratzeko paper pintatuak erabiltzea. Gero, ordea, modak baztertu egin zituen, eta urteetan ez ditugu ia ikusi ere egin. Paretak pinturarekin margotzea jarri zen modan orduan. Baina orain, badirudi berriz ere indartsu datozela paperak.

Oinarrian, bi paper mota daude: gofratua edo binilizatua eta binilikoa.

PAPER GOFRATU EDO BINILIZATUA


Berniz kapa bakarra du eta hezetasun handia duten geleterako aproposa da. Garbitzeko nahikoa da esponja bat arin-arin pasatzea.

PAPER BINILIKOA

Binilo kapa bat du eta horren ondorioz, iragazgaitza eta garbigarria da. Aunitz erabiltzen diren geletarako gomendagarriak dira: jantokia, haurren logela, sukaldea, bainugela, pasabidea... Halako paperak mantentzea ez da zaila, urarekin eta xaboiarekin garbitu eta trapu batekin lehortuz garbi daiteke.

Gainerakoan, aukera anitza da: egitura geometriko-etatik hasi eta marrazki tradizionaletara, gisa guztietako paperak aurki daitezke merkatuan. Dena den, papera jartzerakoan, kontuan izan, paretak leunak baldin badira ez dutela tratamenturik behar; aldiz, latzak baldin badira leuntzea komeni dela. Kolorea hautatzerakoan gelaren neurria kontuan hartu behar da. Izan ere, kolore ilunek gela tikiagoaren sensazioa ematen dute eta ez dira aproposak gela tikiatarako. Halakoetan, hobe pareta batean bakarrik jartzea, eta gainerakoak, zurian edo tonu argi batekin uztea.

Gastu haundiegirik egin gabe, eta moble guztiak mugitu gabe, dekorazioa aldatzeko aukera ematen du paperak. Hala, etxeari aire berri bat eman nahi badiegu, margotutako paperak erabili baino ez dugu egin beharko. Aldaketa aski ikusgarria izan daiteke.



Kidatzpegi Auzoa, 6 Denakariako Etxeak 31770 Leizika-Naizka
Tel: 948 627 554 - 656 763 186

►Txus Ubiria Andueza
margoketa lanak · pintor



Pintura lanak
orokorrean

MELO
pintura lanak

Tfnoa: 609 873 178 - LEITZA



Pinturas
Irular

- Kanpeko eta barneko pinturak
- Kolore guztiak ordenadore bidez prestatzen ditugu
- Pintura industriala
- Alfombra eta moqueta
- Zuraletako tratamenduak
- Fraktalis
- Paper pintatuak

948 45 22 50
IRURITA

AUKERA ZABALA



KANPO ETA BARNEALDEAK

**ESKATU AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

ETXEPARE anaiak

Igeltseritza orokorrean

Bittiria, 22
LESAKA
948 637 431
608 576 504



TXARUTA, S.L.

iturgintza
berokuntza
gasa

948 45 17 28 • 659 77 00 15
GAZTELU

beraclima



Hotz Industriala
Ostalaritza
Klimatizazioa
Aire girotua
Eguzki plakak
Berokuntza eta gasa
Instalazio mantenu

Salgai dauden produktuentzako
Planoak gautatzeko
Girotoz sistemak instalazioa eta mantenimendua
Aire girotua (Hotz/berria)
Ekoizpena/erretapena

M 649 47 20 58



ARTILEA

Etxearen isolamendu termikoa eta akustikoa lortzeko elementu naturala

Garai batean etxerako elementu hagitx erabilgarria izaten zen ardiaren ilea (lastairak (koltxoak) betetzeko, trikotak egiteko...). Saldu ere egiten zen, sos batzuren truke. Aspaldixkotik, ordea, gehiena zaborretara joan ohi da. Hondakina da. Dena den, badira artilea eskulanetarako erabiltzen dutenak, eta berriki, badaude funtzio berri bat bilatu diotenak ere etxerako isolatzaile termiko eta akustiko modura.

Izan ere, osagai naturalak gero eta gehiago erabiltzen dira isolatzaile funtzioetarako eta horien artean dago artilea ere. Isolatzaile termiko eta akustiko ona baita, adituen iritziz.

Baporea xurgatu eta kanporatzeko ahalmen handia du artileak, eta horrek etxeak fresko mantentzen ditu udan eta goxo neguan. Udan, etxeko tenperatura igotzen denean, eta berotzen hasten denean, artileak lehendik xurgatua duen hezetasuna bota egiten du, eta horrek, eraikina edo gela freskotu egiten du. Bertze zenbait isolatzaileekin konparatuz, tenperatura 7 gradutan jaitsiaraz dezake.

Neguan hezetasuna xurgatzen du artileak, eta horrela, berotasun efektua sortzen da.

Udan aldiz, giroa berotzen denean, lehendik xurgatua zuen hezetasuna botatzen du, eta horrek, frexkotasun efektua sortzen du.

Neguan, aldiz, giroan dagoen hezetasuna xurgatzen du eta horrek berotasuna sortzen du. Tenperaturak 4 gradutan egin dezake goiti artilearen efektu honen ondorioz.

Isolatzaile 'higroskopikoa' delako du gaitasun hori artileak, hau da, ezaugarri termikoak galdu gabe, uraren baporea xurgatu edo bota dezakeelako. Artileak berotasuna sortzen du hezetasuna xurgatzean, eta airean lurrin gehiegi dagoenean, artileak hezetasunaren %40 ere irensten du. Alde horretatik, gastu tikiagoa sortzen du berokuntzan eta aire girotuan.

Adituek diotenez, hagitx erabilgarria da etxe barreneko paretetarako, zoletan jartzeko edo terraza eta azoteatan... gehiegizko hezetasunaren pilaketa saihesten delako. Bertzalde, hezetasuna erregulatzeaz gain, etxe barreneko agente toxikoak ere erregulatzen ditu artileak.



APEZTEGIA BERRIA

BURDINDEGIA

Leitzako bidea
DONEZTEBE
948 450 994



ETXETRESNAK



PINTURA



ERREMINTA



Lasao

• egurrezko altzaria



Lasao industrialdea 20730 AZPEITIA
Tfnoa: 943 15 11 82 · Faxe: 943 15 10 98
e-posta: informacion@lasao.com

www.lasao.com



GORTINAK

Estilo japoniarra leihoetan

Orain dela urte batzuk estilo minimalista deiturikoa hedatzen hasi zen gurean, Japoniako estiloan oinarrituz batez ere. Espazio edo egongela txikietarako arras ego-kiak dira, haunditasun sentazioa eman eta etxeko espazioak elkarrengandik ba-natzeko ere aproposak dira. Kolore garbiak, forma geometriko sinpleak, oihal na-turalak eta dekorazio sinplea daude joera honen oinarrian.




Ekialdeko dekorazioa etxe-ko edozein txokotan erabil daiteke, baita gortinetan ere. Kasu honetan, gortina edo estore japoniarrei dagokio-nez, oihal errektangularrak eta lerrokatuak bertikalki para-tuak, bata bertzearen gai-nean jarriak, eta lurreraino-koez ari gara.

Gortinak, denak alde bate-ra edo erdia ezkerreko eta berte erdia eskuinera bil daitezke. Halakoetan, oihal zurrunk aukeratzea kome-ni da. Alabaina, bertzelako telak ere erabil daitezke, sa-re-errezel edo bisilloak, adi-bidez.

Horrelako gortinek ongi ematen dute lehiate haundi eta begiratokietan. Gainera, koloreak nahas daitezke, es-tanpatuak edo leunak. Estore estanpatuak aukeratze-

rakoan arreta berezia jarri behar da aukeratutako marrazkian. Estorea biltzerako-an marrazkia moztuta gera daiteke, eta horrek, dekorazio minimalistarekin lortzen den lasaitasun sentazioa apurtu dezake. Bidenabar, kanpoko argia iragazteko edo-ta egongelari ñabardura berezia emateko arras eraginkorrak dira.

Desmuntatzea erraza denez garbitzeko ere ez dute batere konplikaziorik.



D
H I R U K I D E

Eguzki panelak • Iturgintza
Industria mantenimendua
Aire egokitua

Zalain Industrialdea 42 B - 15 • BERA
948 625 395 • zerbitzua@terra.es

ITURRIONDO
ZURGINDEGIA

• parketak • ateak • leihoak...
• teilatuak • estruktura • tarimak

Zalain ind. 7 • BERA • 948 631 430 • Fax: 948 625 330

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea

ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
☎ 629 449602
Iturlandeta 4, beheko • BERA

BIKAIN
ERAIKUNTZA KONSTRUKTIOAK

Luis Oñativia Alzugarai

☎ 652 764513

ERAIKUNTZA BERRIAK
BERRITZE LANAK
ETXE BARNEKO OBRAK



Ordoki Industrialdea
ARIZKUN
Tfnoa: 948 453 451
619 514 048



kinttalko
eraikuntzak s.l.
31754 Golzueta (Nafarroa)
Tl. 948 514 090
Ml. 653 700 495-96

**IGELTSERITZA
OROHAR**

mutuavenir:
seguros y servicios

Servicios Berawin

- Ekzeibizitza eta antoen aseguruak
- Jubitazioa / Istipiak / Osasuna / Ehiza
- Informazio inmoiliarioa
- Industria

Foruen Plaza, 6 • 31780 BERA
Tel.: 948 63 06 01 • Faxa: 948 630 805
berawin@terra.es



IRIBARREN
zurgindegia

Fabrikazio propioa

LEIHOAK "CE" zertifikazioarekin
kontraleihoak, tarimak, ateak...
Zurgin lanak orokorrean

Tfnoa: 948 635 071 • ETXALAR

BANKETXEEN BALDINTZAK

Kredituak lortzea gero eta zailago

Banketxe batek kreditua emateko eskatzen dituen baldintzak ez dira aldatu azken urteotan. Baina egoera ekonomikoa aldatu egin da, krisi ekonomikoak bete-betean eragin duelako. Diru guttiago dago, beraz, banketxeek emateko guttiago dute edo beldurrez daude emateko, eta dagoena garestia ematen da.

Maileguak eskuratzea ez da orain dela urte batzuk bezain erraza. Bolo-bolo dabilen krisi ekonomikoaren ondorioz kredituak emateko politika, ordea, ez da lehen-goaren berdina. Banketxeek ez dituzte lehen bezain erraz ematen kredituak, eta ematen badituzte aplikatzen duten interesa hagitz altua da. Edonola ere, hauek dira banketxeek kredituak ematerakoan kontuan hartzen dituzten baldintzak:



Lanaren egonkortasuna

